



ARGIA



EUSKALTEGIA

7

HELDUEN EUSKALDUNTZEA DOAKOTASUNA ATE-JOKA

- » EUSKAL OASIA SUTAN: HEGO EUSKAL HERRIKO DATU SOZIOEKONOMIKO GORDINAK
- » ZER DAGO ZUBIETAKO MAKROKARTZELAREN ATZEAN?
- » RAQUEL GUTIÉRREZ MILITANTEA, BOLIVIAKO MUGIMENDU INDIGENAZ





ARGIA

BATZUK 20. korrika
2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra
OTXANDIOTIK IRUÑERA

Lasarte-Oria, 23:23

1318

**Basaundin, Oria-Txiki parean
(Zirkuitu Ibilbidea)**



Martxoaren 30tik apirilaren 9ra
20. KORRIKAri jarraipen zuzena
argia.eus-en

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Papua Ginea Berrian oihana desagertzen

IRITZIAK

- 17 Asier Blas
- 18 Fermin Erbiti
- 19 Joxe Iriarte *Bikila*
- Edu Zelaia
- 20 Angel Erro



Euskal oasia sutan: krisia hasi zenetik zabaldu egin da Hego Euskal Herrian aberats eta txiroen arteko arrakala.

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: ISABELLE SENTIS
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Raquel Gutiérrez: "Hauteskundeetatik edo bide autonomotik jo? Eztabaida antzutzaila" / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | Euskara ikasten. Doakotasuna agenda politikoan / Onintza Irureta Azkune
- 28 | Makro-kartzela proiektua. Zubietako tatuaiak / Markel Ormazabal
- 30 | Euskal Herria, Katalunia eta Galizia: Hezkuntza propioaren aldeko borrokak batuta / Ane Eslava Serrano
- 32 | Armentia-2 proiektua: Frackinga albo batera utzita ere, gasa jomugan du Jaurilaritzak / Unai Brea
- 34 | Euskal oasia sutan / Lander Arbelaiz
- 44 | Mr. Rosset: Aurkikuntza harrigarri baten kronika / Ion Olano Carlos
- 47 | Arte iruzkina: Maider Lopez / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdia: Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak egin, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



मः ॥
निवेदन है कि
य ठाकुर जी के
फेके तथा किरमी
हैं।
निवेदक -
मन्दिर प्रबन्धक कमल
दीप्ति दासराज, कुदाव

सूचना
श्रीमान् महोदय हेतु मन्त्र ज्ञान के अभाव में
श्रीमान् जी के सम्बन्ध में निर्णय है कि वे सम्बन्ध
सम्बन्धित हैं अथवा नहीं इसका निर्णय श्रीमान् जी के
होना है जो वे स्वयं ही निर्णय करेंगे। श्रीमान् जी के
निर्णय के अनुसार ही कार्य किया जायेगा।
श्रीमान् जी के निर्णय के अनुसार ही कार्य किया जायेगा।

सूचना
श्रीमान् महोदय हेतु मन्त्र ज्ञान के अभाव में
श्रीमान् जी के सम्बन्ध में निर्णय है कि वे सम्बन्ध
सम्बन्धित हैं अथवा नहीं इसका निर्णय श्रीमान् जी के
होना है जो वे स्वयं ही निर्णय करेंगे। श्रीमान् जी के
निर्णय के अनुसार ही कार्य किया जायेगा।
श्रीमान् जी के निर्णय के अनुसार ही कार्य किया जायेगा।



PANORAMA

Negu beltzari agur

Gurean bezala munduko txoko askotan egin diote harrera udaberriari. Ez dira gutxi ospakizun haietan erreparatzen diotenak udalehenak inguruko landa, lore eta zuhaitzetan dakarren kolore festari. Holi da horietako bat. Indian du jatorria, eta egun Europako zenbait hiritan ere ospatzen dute. Ilargi betearekin batera, "koloreak" elkarri botatz ospatzen dute hinduismoaren jarraitzaileek bedatsearen etorrera. Emankortasunaren eta maitasunaren ospakizuna ere deitzen diote. Irudian, Indiako Banke Bihari tenplua.

Argazkia: David Julià · Testua: Axier Lopez

“Hain indibidualistak izan nahi dugun eta garen gizartean, zaintzak zer rol duen hausnartu dut; zaintza zenbateraino behar dugun hain bakarrik ez sentitzeko, edo gure nortasuna berresteko”

Ana Malagon, idazlea

“Hedabideek dute arrazakeriaren ardura handia, aurreiritziak indartzen baitituzte”

SOS Arrazakeria (Bilbo Hiria irratia)

Sara Majarenasen abokatuek

azpimarratu nahi izan dute, baldintzapeko askatasuna lortzea eta beraz lizarrekin etxeratu ahal izatea dutela helburu, eta epaitegiak 2. gradua 100.2 artikuluekin ezarri ziola, Majarenasek honako adierazpena bidali ondoren: “ETAk egindako kaltea aitortzen dut eta bide biolentoak ez erabiltzeko konpromisoa hartzen dut, soilik bide baketsuak. Era berean, biktima ere banaizen aldetik, mota guztietako biktimen erreparazioa lortzeko eta edozein biolentziak sortutako zauriak sendatzeko lan egitera konprometitzen naiz”.



ELA

“Konfrontazio fasea ireki dugu”

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

7-8 urte daramatzate Eusko Jaurlaritzari hezkuntzak bizi duen “egoera larria” mahaigaineratzen, urtez urte murrizketen eraginez okerrera egin duen egoera, baina ez duela negoziatu nahi kexu dira sindikatuak: “Ekarpenak egiten saiatu gara, baina ez digute entzun ere egiten eta mahai guztietatik altxatzea erabaki dugu, muturreraino tenkatu dute soka eta konfrontazio fasea ireki dugu: kalera atera dugu gatazka”. Aitor Idigorasen (Steilas) hitz horiekin bat dator Xabi Irastorza (ELA): “Beti berdina da aitzakia, aurrekontu jakin batzuekin jokatu behar dutela, baina hezkuntzara bideratutako inbertsioa 2009an baino 162 milioi euro txikiagoa da eta adibidez AHTra bideratutakoa orduan baino 280 milioi euro gehiago. Aspalditik krisia dute aitzakia, murrizketak betikotu nahi dituzte”.

Hezkuntzan murrizketak alboratu eta inbertsio publikoa handitzeko eskatu asmoz, greba eta mobilizazio eguna deitu zuten Steilas, ELA eta LABek martxoaren 22an. Sindikatuen arabera, langileen hiru laurdenak bat egin zuen deialdiarekin; Jaurlaritzaren esanetan, langileen erdiak. “Jaurlaritzak arazo politiko bat du hezkuntzan, eta aldebakartasunez ari da jokatzeko, negoziaketaren ateak itxiz”, adierazi du Aitziber Perezek (LAB). “Mobilizazio fase indartsua eta jarraitua” antolatu nahi dute, egoerari buelta emateko

Ikasleak ere grebara

Egun bat geroago, ikasle greba deitu zuten Ikasle Abertzaleek, “Sistemari aurre egin!” lelopean egungo hezkuntza sistema salatzen eta bereziki LOMCE eta Heziberri arbuizatzeko. Ikasle mugimenduak erreportajea irakurri dezakezue, 30. orrian.

“Apirilaren 8an milaka izanen gara bakearen artisauek”

MIXEL BERHOKOIRIGOIN, EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBERAKO PRESIDENTEA

Bakearen artisauek Baionan egindako prentsaurrekoan azaldu dute eragile guztiekin dardela harremanetan, baita estatuekin ere. Berhokoirigoinek ziurtatu du apirilaren 8an “osoki” egingo dela ETArekin armagabetzea: “Milaka izanen gara bakearen artisauek” eta ekimen “publikoa eta egiaztatua” izango da. Denera 600 hautetsik baina gehiagok babestu dute egun horretarako iragarritako dagoen ekintza. **2017-03-23**







Ekonomia, feminismotik

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Euskal Herriko 200 emakume aritu ziren martxoaren 25ean Azpeitian, Bilgune Feministak antolatutako Ekonomia Foro Feministan. Sarrerako hitzetan, Bilgune Amaia Zufiak azaldu zuen foroaren helburua: “Emakumeen bizi baldintzak asko gogortu dira urte hauetan: prekaritatea, baldintza miserableak dituzten lan sektoreak, erregimen bereziak dituzten lan eremuak (zaintzaileak, nekazariak, sexu-langileak...). Guk bizitza eta haren zaintza jendartearen erdigunera ekarri nahi dugu. Eredu arteko gatazka bizitzaren ari gara eta kapitalismoari hegemonia irabaziko dion eredua lantzea da gure helburua”.

Ekonomiaz lehen pertsonatik hitz egiteko eta “umiltasunez eta autokontzientziaz”, galdetegi bati erantzun zion norberak, bakoitzak bere beharrianak nola asetzen dituen hausnartuz. Ondoren, taldean elkartu eta talde bakoitzak gai hauetako bat landu zuen: prekaritatea, zaintza eta harremanak.

Eguerdian, “bizitza erdigunera ekartzeko bideez” aritu ziren mahai-inguruan, Mari Luz Esteban (EHU), Silvia Carrizo (Malen Etxea), Cristina de la Cruz (REAS Ecosolfem) eta Helena Franco (Ogasun diputatu ohia). Besteak beste, ideia hauek azpimarratu zituzten.

Estebanek “elkar-babesteko sareak” terminoa defendatu zuen, “zaintza” orokorrearen aurrean: “Sare horietan elkarren babes ekonomikoa, fisiologikoa, egunerokotasunari eusteko jarduerak partekatzen dira, aisialdikoak, eta jarduera politiko eta sozialak. Zaintzatik harago doaz eta oso dinamikoak dira, leku anitzetan mugitzen dira. Nire inguruan zer sare daukadan, horretaz pentsatu behar dugu”. Carrizok agerian jarri zuen askeak bailiran bizi direla ahalmen ekonomikoa duten gizon-emakumeak, askeak ez diren etxeko langileekin elkarbiziz: “Etxeko langileak ez du intimitatez ez familiarik, hemen dago lan egiteko orduro, gutxi ordainduta, eta sentitu dadila eskertua. Euskal Herritik pentsatzen dugunean zer den merezi duen bizitza, kontuan ditugu bizimodu hauek?”. Francok ekonomia eredu alternatiboaren oinarriak seinatu zituen: “aberastasunaren banaketa, enpleguaren banaketa, bizitzeko beharrezko dena eta ingurumenarentzat jasangarria dena soilik produzitzea, zaintza lanaren ardura kolektiboa...”. De la Cruz tokiko ekonomia eta esperientzia komunitarioak jostez aritu zen: “Justu merkatu globalen aurkako logika da. Elkarri eustea da tokiko ekonomiaren oinarria”.

Arratsaldean, esperientzia praktikoak landu ziren: auto-finantziazio ereduak, amatasunak, denboraren kudeaketa, prekaritatea, emakumeen grebak...

Kronikak osorik, *Gaitzerdi* blogean.

EKONOMIAREN TALAIAN

Kutxabanken erabilera politikoa



Juan Mari Arregi

Diruaz bidegabe jabetzeagatik Mikel Cabieces, Mario Fernández eta Rafael Alcorta zigortu dituen epaiak hainbat irakurketa izan ditzake. La-burbilduz, Mario Fernández Kutxabaneko presidenteak agindu zuen Mikel Cabieces Espainiako Gobernu-ko EAEko ordezkari ohia hiru urtez hilean 5.738 euro –eta bidaia gastuetan 900 euro gehiago– ordaintzeko, Rafael Alcorta abokatuaren bulegoaren bidez. Ordainketak 2012ko martxoan hasi ziren. Mario Fernándezek dimititu egin behar izan zuen hiru urte horiek bete baino lehen eta 2014ko azaroan erabaki zuen gertatzen ziren hilabeteak aurrez ordaintzea. Denera 243.592 euro. Ez da inon jaso Mikel Cabiecesen lanik Kutxabankentzat.

Gertaera horiek erakusten dute Kutxabank politikoki erabili dela Espainiako Gobernuaren interesen zerbitzura. Nahiz eta erakunde horretan inoiz lanik egin ez, diru publikoz –Kutxabaneko bezeroek– itzuli zioten borroka “antiterroristan” egindako zerbitzua. Enplegatuei iseka egin die: hauek bai egiten dute lan Kutxabankentzat, baina “soldata” politiko hori baino askoz gutxiago irabaziz. Eusko Jaurlaritzak hori justifikatzea ere iraina da Dirua-Sarrerak Bermatzeko Errentan murrizketak jasan dituzten milaka lagunentzat eta enpresa publikoetan kontratu prekarioekin dabilzanentzat, baita miseriazko pentsioak jasoz biziraun behar duten pentsionistentzat ere.

Azkenik, ez dirudi kasu hori bakarra denik, eta logikoa da jendarteak susmoa izatea “beste Cabieces” asko daudela, argitu eta azaleratu beharrekoak. Arduradunak eta errudunak ez dira, noski, zigortutako hiru pertsonak bakarrik, baita hori babestu eta estali zuten EAJ, PSE eta PP alderdiak ere. Orain isilik geratuko al dira? Litekeena da.



SAIOA ALKAIZA

Autobus transfobia ez da ongi etorria

EUSKAL HERRIA. Transexualitatearen aurkako mezua zabaltzen duen Hazte Oír talde ultrakatolikoaren autobusak Iruñea eta Gasteiz bisitatu ditu, eta protesten artean hartu dute, “gorrotoak ez duelako lekuri lurralde honetan”. Euskal Herritik igaro ostean, AEBetako errepideetara eraman dute autobusa, eta lehen egunean eraso egin diote New Yorken: leihoa apurtu diote, argazki txikian ikus daitekeenez.

la desagertu zen hawaiierak 24.000 hiztun ditu gaur egun

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Eskolan hizkuntza debekatu zuten 1896an. Desagertzeko zorian egon zen hawaiiera. 1985ean hasi ziren dena hawaiieraz irakasten zuten ikastetxeak. Orain unibertsitatean sartu nahi dute.

Punana Leo

Izen hori hartu zuten haur eskolak dena hawaiieraz egiten hasi ziren. Hezkuntza Sailak aitortu zien ez zutela ez irakasle prestaturik ezta ikas metodologiarik ere, baina haur eskolak lanean hasi ziren.

Hiru belaunaldi

Punana Leo haur eskoletan ikasitakoak jada guraso dira eta haien haurrak dararmatzate murgiltze ereduko eskoletara. Emaizta ondokoa da: 2001ean 2.000 hiztun eta 2006-2008 urteetan 24.000.

Unibertsitatean

Hurrengo erronka hizkuntza unibertsitatean irakastea da. Hizkuntza bai, baina harago joateko nahia ere badute. Hawaiierren heziketa filosofia, bizitzeko modua, txertatu nahi dute unibertsitatean.

ZAINTZA



%83

80 urtetik gorako arabarren %83k, geroan ezintasunen bat izan edo ez, etxean bizitzen jarraitu nahi du eta zaintzaileak senideak izatea, Aldundiak kaleratutako inkesta baten arabera.

%2

baino ez da bere kabuz baliatu ezin denean egoitzara joango litzatekeela erantzun duena.



ERRAUSKETARI EZ

“Alternatiba dagoelako, erraustegirik ez” lelopean batu dira 4.000 lagun inguru Donostian, Erraustetaren Aurkako Mugimenduak deituta. Ehundik gora gizarte eragile, alderdi politiko eta sindikatuk egin dute bat deialdiarekin.



MCGUINNESS HIL DA

Martin McGuinness hil da Derry hirian, 66 urte zituela. Sinn Feinneko kide eta IRAko buruzagi ohia, Sinn Feinnen talde negoziatzaileko burua izan zen, 1998ko Ostiral Santuko Akordioarekin amaitu zen bake prozesuan. Duela aste gutxi utzi zuen politika.



ALTSASUKO AUZIA

Altsasuko auzia Iruñean epaitu behar dela erabaki du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, baina Auzitegi Gorenaren esku dago azken erabakia: hark erabaki behar du kasua Iruñean edo Madrilan epaituko duten.

Papuarraren mezua: “Oihana desagertuz gero gizadia desagertuko da”



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Papua Ginea Berrikoa da munduko hirugarren oihan handiena, Amazonas eta Kongo arroakoen atzetik. Astero iristen da handik landare edo abere espezie berri baten aurkikuntzaren berri, bertako milatik gora etnia eta hizkuntzak osorik ikertu gabe daude. Eta hala ere, munduko azken paradisutzat daukaten hura zuhaitzik gabe soilduz doa, haietako zura mundu osoan saltzeko Txinan transformatuta.



Martxoaren 21ean Oihanen Nazioarteko Eguna ARTE telebista frantses-alemanak ospatu du basoei lotutako film sorta eskainiz. Horien artean *Frères des arbres* (Zuhaitzen senideak), bigarren titulu daramana “Buruzagi papuar baten aldarria”. Interneten dago ikusgai.

“Munduaren hasieran ez zen ezer, isilasuna eta gaua besterik ez. Egun batez txoriak hasi ziren kantari eta zuhaitz handiak erori lur gainera. Hurrengo goizaldean nire leinuko jendeak esnatu ziren eta geroztik naturaren erdian bizi izan dira, zuhaitzen artean. Ni Mundiya Kepanga naiz, Huli tribu papuarraren buruzagia eta basoaren enbaxadorea. Munduan zehar nabil denoi dagokigun mezu bat zabaltzen: oihana mehatxatuta dago, eta oihana desagertzen baldin bada gizadia osorik desagertuko da”.

Huli tribua mendi aldeko baso tropikalean bizi da Papua Ginea Berrian, Itsaso Barean Australia handiaren goiko aldean. Oihan primario bakanetako bat da, Kongo eta Amazonasekoekin batera gizakiak eraldatu gabe iritsi zaizkigunetakoa. Bertan bizi diren animalietako asko munduan beste inon ezin dira aurkitu: zuhaitzetako kanguroa, Victoria usapala, herrialdearen ikurra den Paradisuko hegaztia... Hegaztietan handiena, eta gizakiarentzako arrisku suena haserrarazten baldin badute, 1,80 metroko altuera duen Casuariusa, indioilarraren itxura adina ostrukarena duena. Papuako Hulitarrek beren buruak dauzkate antzinako Casuarius baten oinorde-

kotzat, haren arrautza batetik sortuak omen.

Marc Dozier frantsesa da dokumentalaren beste protagonista. 20 urte daramatza Papuako oihana iruditan biltzen. Hark kontatuko dio ikusleari Papuako oihanak berak bakarrik Europa osoak baino bioaniztasun aberatsagoa daukala. 20.000 landare mota, 1.500 zuhaitz klase, 3.000 xomorro espezie, 750 gora txori. Mundiya hosto batzuk eman dizkio Marci: “Landare magikoa da, emakumeak seduzitzeko”.

Oihana benetako supermerkatua da, bizitzeko behar duten guztia eskaintzen die jendeei: fruituak, aleak, hostoak, onddoak eta jateko bezala edozertarako baliagarri diren landareak, lokarriak egiteko lianak... Janari preziatuak ere bai: enbor ustelduetan hazten diren harriak, atzamarra bezain potxoloak.

Mundiya bere zuhaitz propioa dauka, amak orbel gainean erditu zuen lekuan aita landatua. Arbola eta Mudiya senideak dira, honek besarkatzen du hunkiturik: “Ez dakit biotatik zein hilko den lehena. Baina ni hildakoan honen oinetan lurperatuko naute. Baldin eta orduan oihanik baldin bada...”.

Egunero milaka zuhaitz handi eraisten baitituzte Papua Ginea Berrian. Hitz egitera konbidatzen duten bakoitzean, Mundiya erakusten ditu mapetan dagoeneko oihanez soildutako eremuak. Huli jendea bizi den eskualdeko basoen erdia suntsitua izanen da 2021rako.

Dozierrek Mundiya famatu egin du batik bat Frantzian; eskoletara eraman,

du legebiltzarrerara, Nazio Batuen Erakunderaino... “Papar baten ibilerak Frantzian” liburuarekin etekin arrakastatsua atera die oihanean sortutako Mundiya Mendebaldeko zibilizazioan eduki dituen bizipenei.

Paradisua lapurrak oparitu

Marcek eta Mundiya oihanak eraisten ari diren eremu bat bisitatu dute. Han beste papuar batzuk langile ari dira baso mozketan, jornamean. Malasia, Filipinak eta Indonesiatik etorritako atzerriarrak kontratatuta dituzte, mundu modernoan biziraun behar, arbasoek utzi arbola adinik gabeak botaz. “Motozerrak zuhaitzak ebakitzen dituzte banana helduak bezain erraz. Erortzerakoan arboleak garrasi egiten dute, familiari eta munduari agur esanez bezala”.

Papua Ginea Berrian gaur 300 kontzesio daude oihanak eraisteko. 15 milioi hektarea atzerriko konpainia handiek ustiatuak. Frantziaren heren baten taimainako eremua motozerraren eta *bulldozzeren* esku utzia.

Dokumentalean bisitatu dituzte dagoeneko deforestatutako eskualdeak. Eta herritar triste haserretuak aurkitu: “Hutsaren truke eraman digute oihana, ez digute ezer utzi, ez eskola, ez osasun etxe, ez azpiegitura. Gure herriko boteretsuenek sinatu dituzte kontratuok. Larriena da gero edozein keharekin jotzen baduzu konpainia horien bulego-ra... gure polizia aurkitzen duzula bertan, geure larruazal bera dutenak, geuk



'Frères des arbres' dokumentaletik hartutako irudian, Mundiya Kepanga –Huli leinukoen buruko eta sudurra trabesten dion apaingarri eta guzti– bere sorterritik eramandako enbor erraldoietako baten tamaina erakusten, Txinara zura esportatzeko Papua Ginea Berrian espres eraikitako kaietako batean. Trafikatzaileek Malaysian eraitsiak balira bezala faltsututa, Txinan enborrotako batzuk ohol edo altzari bihurtuko dituzte, baina beste asko okume tipoko kontraxafatu merkeak ekoizteko baliatuko.

pagatuak, baina atzerritarren interesak defenditzen”.

Eraitsi ostean, zuhaitz erraldoiak itsasorantz daramatzate kamioi handietan. Horietatik itsasontzietara. Papua Ginea Berria munduko zura esportatzaile nagusia da. Urtero 50 milioi metro kubo enbor doaz Txinara, baina tartean papearak faltsifikatuta nazioarteko trafikoa-ren kontrolak engainatzeko; bitartekari malasiarrek trikimailua antolatu dute. Txinan bihurtzen dituzte ohol, lur-zoru, paper, kaxa, ate, aulki... ondoren AEBetara, Amerikako beste herrialdeetara eta Australiara saltzeko. Herritarrei merbau edo wenge zura 10 euro pagatzen diete metro kubikoa, nazioarteko merkatuan 342 euro kobratzeko.

Konpainiak indartsuegiak dira herri-tar hain ahulentzako. Nahi adina diru daukate jendea erosteko, basogintzara-

ko antolatu diren langile-herrixka berrietako bizimodu eroan ikusten den bezala. Botere politikoak amen esaten die denetan: 2007an Papua Ginea Berriko legedia aldarazi dute herrialdeko oihan gehienetan atzerriko konpainiek eskua sartu ahal izan dezaten.

Frères des arbres dokumentalak iradokitzen du Oro probintziako gobernadore Garry Juffa dela salbuespena, legea urratuz zuhaitzak eraisten dituztenak pertsegitzen dituen bakarra. Nahiz eta irudietan agertzen duen jite autoritario demagogoak ikusleari zenbait susmo pizten dion.

Oihanen beste eremu handiak oliotarako palmondoz ordezkatu dituzte. Milaka urtetako ekosistemak suntsituta, palmondo soro itzelak, eta haietan obre-ro papuarrak halamoduzko bizimodua irabazten, umetako oihanak galdurik.

Batek Mundiari: “Baina benetako arbolarik uzten ez badugu ez da gehiago izanen zuk buruan daramatzazun lumak bezalakoak dauzkaten hegaztirik”.

900 tximeleta espezie daude Papua Ginea Berrian. “*Ornithoptera Alexandrae*” munduko handiena da, emeak 27 zentimetroko zabalera eduki dezake. Tximeleten esportazioa ere diru iturri dute hainbat herritarrek eta jatorrizko oihanen kontserbazioaren aldeko talde batzuek sustatzen dute, pizgarri eraginkorra direlakoan. Baina tximeletak, Huli jendearen ohiturak eta errituetarako behar dituzten osagarri guztiak bezala, oihana bizirik atxikitzearen baitan daude. Mundiak diotso Marc zinegileari: “Zuek zuriok, jende bitxia zarete, zuen basoak asko zaintzen dituzue, baina ez duzue errespetu bera urruti bizi garen oihanekiko”. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Raquel Gutiérrez, militante eta pentsalari internazionalista

«Hauteskundeetatik edo bide autonomotik jo, eztabaida antzutzailea da hori»

Umetan, Latinoamerikako hainbat iraultzari buruzko kantuak eta kontuak entzun zituen Raquel Gutiérrez. 20 urte eskas zituela, unibertsitatean ezagutu zituen matxinada haietako seme-alabak, eta berehala egin zuen hegoalderantz, bertatik bertara bizitzeko askapen-borroken kimu berriak. El Salvador, Bolivia; ekintza, kartzela. Gero, hausnarketa: berriro ekiteko, hobeto ekiteko. Donostiako Kaxilda eta Iruñeko Katakarak liburu-dendetan izan zen hilaren hasieran, liburu-aurkezten.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Gaztetatik izan zara aktibista. Nola hasi zinen?

1979.a urte garrantzitsua izan zen: sandinisten iraultzak irabazi zuen, Kubako iraultza gertatu eta 20 urtera. Garaipen horrek markatu zuen Latinoamerikako bidea, hauspotu eta berrabiatu zuen borroka-tradizio bat, gerrilletatik zetorrena. Kontinente osoa hasi zen astintzen: besteak beste, Guatemalan, garaitsu horretan ari ziren zabaltzen mugimendu indigenak eta komunitarioak. Beraz, auzokoak bor-borka geneuzkan, eta gainera, Mexikok bazeukan ate irekien politika bat, onartzen zituen beste herrialdeetako errefuxiatuak, nahiz eta barne-mailan sekulako kontrola ezarri. Hiriburua josita zegoen nikaraguarrez, salvadortarrez, kolonbiarrez, eta UNAM unibertsitate nazional handi-handia, zer esan... Hortik nator ni.

El Salvadorrera joan zinen lehenik.

Bai, errefuxiatu eta militanteen zurrumbilo horretan, salvadortarrekin hasi nintzen harremanetan batez ere, eta San Salvadorrera joateko gonbidape-

na egin zidaten. 1983an joan nintzen eta han atxilotu ninduten lehen aldiz. Oso gaztea nintzen eta herrialdeko erakunde iraultzaile garrantzitsuenetako baten zatiketa zela-eta hartu ninduten preso. Nik ez neukan arrastorik ere horretaz, zeharo bertikala baitzen erakunde hura, eta oinarriko militanteek ez zeukaten inongo informaziorik; izugarri haserretu nintzen, eta izugarri beldurtu. Zorionez, azkenean, deportatu egin ninduten, eta nire buruari zin egin nion ez zitzaidala berriro halakorik gertatuko, hau da, berriro atxilotzen baninduten, zehatz-mehatz jakingo nuela zergatik.

Borrokan jarraitzeko gogoa ez zitzazun itzali hala ere. Hurrengo urtean, Boliviara jo zenuen.

Hori da, 1984. urtearen amaiera aldera joan nintzen Boliviara, hainbat kiderekin. 20 urtez, gobernu militarren segida bat egona zen han, ez diktadore bakar bat, baizik eta hainbat, kolpez kolpe aldatzen zirenak. 1982an, baina, demokrazia aldi bat zabaldu zen, eta ondo-

rioztatua genuen halako batean amaitu egingo zela bolada demokratiko hura, Bolivian ez baitute sekula luzaroan irautzen, eta hortaz hasiko ginela antolakuntza-prozesu bat eraikitzen, kolpea zeto-rrean prest egoteko.

Raquel Gutiérrez Aguilar

1963, Mexiko Hiria

Matematikaria, soziologoa, aktibista. 80ko hamarkadan Boliviara joan zen eta Tupac Katari (EGTK) erakunde kide izan zen. 90eko hamarkadan atxilotu zuten, torturatu, eta bost urte egin zituen espetxean. Ez zuten sekula epaitu. Kartzelatik atera ostean hasi zen unibertsitatean lanean, eta Boliviako mugimendu indigena eta sozialei buruzko doktore-tesia idatzi zuen. Gaur egun, Pueblako Unibertsitate Autonomoan ari da irakasle, Mexikon. Hainbat saiakera-liburu argitaratu ditu.





Horrelaxe abiatu zen Tupac Katari erakundea?

Oso-oso gazteak ginen denok, eta erakitzen hasi ginen halako modu fresko batean, akaso lañoa zena, baina baita bestelakoa ere. Hala jarri ginen harremanetan mendealdeko aimara komunitateekin, oso ondo eta oso aspalditik egituratutako komunitateekin. Hasiera batean, guk uste genuen haiek errekrutatzen ari ginela, eta, jakina, ez zen hala, baina haiei interesatzen zitzaizkien gure bidea, ikusi nahi zuten ea zer egingo genuen, eta horrelaxe sortu zen lotura oso emankor bat. Noski, noizbait ere konturatu ginen beste zerbaitek ari zela eratzten.

Zer motatako borroka egin zenituzten?

Funtsean, propaganda egin genuen; gerrilla gisa ez ginen hain interesgarriak izan. Jakina, erakunde politiko-militar bat ere baginen, garai hartan ulertzen zen bezala, baina, oinarrian, zera egin genuen: eztabaidarako gaiak aurkeztu, testuak argitaratzen hasi aimara eta ke-txua hizkuntzetan, liburuak eta egunkariak kaleratu...

Edonola ere, asko ikasi genuen tradizio indigenaren antolatze moduei buruz. Adibidez, Andetako tradizio indigenaren arabera, antolakunde edo dena delako bat asko hazten bada eta jada ezin bada ondo maneijatu, bada tradizioak iradokitzen dizu bitan banatzea, hala, bi puskak maneijatzeko modukoak izateko berriro.

Eta berriz atxilotu zintuzten, baina oraingoan bazenekien zergatik.

Ondo baino hobeto nekien, bai. Egia esan, atxilotu aurreko sasoiari, hasia zitzaien gertatzen beste erakunde batzuetan ere gertatu den zerbaitek: erakunde politiko-militarretan, aparatua, aparatu militarrek batez ere, jotzen du bere premiak inposatzera, eta, hala, horren mende geratzen da erakundearen beste segmentu hori, lotuago dagoena bizitza kolektiboaren erreproduktzio materiala eta sinbolikoa ziurtatzeko langintzarekin.

Hala ere, bazegoen beste zerbaitek ez nuena ulertzen. 1992. urtea zen, urte garrantzitsua hura ere, 1989an erori baitzen Berlingo harresia, eta ondorioz, esperientzia sobietarra. Guztiz desados egon zintezkeen horrekin, baina eredu bat zen gutxienez, eta bertan behera amiltzen ari zen, kartekin egindako gaztelu bat balitz bezala. Harrigarria zen, eta apenas geneukan informaziorik. Latinoamerikan ere banan-banan ari zitzaizkien burua mozten gerrilla mugimenduei, eta hasi nintzen pentsatzen, obsesiboki pentsatu ere, ea zer atera zen gaizki.

Hausnarketa horren ondorioz idatzi zen zure lehen liburua: *¡A desordenar! Por una historia abierta de la lucha social.*

Bai, esan bezala, dena ari zen erortzen, eta bolada horretan sortu zen beste gau-

za bat, sortu zen altxamendu zapatista, beste kode batzuekin, beste diskurtso batzuekin. Kartzelan nengoen bitartean astia neukan irakurtzeko, halako gauzen inguruan pentsatzeko, eta orduan hasi nintzen idazten zerbaitek, zalantzan jartzen zituen, nolabait ere, ezker armatuaren zenbait mantra, ezker armatuaren alderdirik maskulinizanteenak. Nekeza egin zitzaidan hura idaztea, askok gaitzetsi baininduten eta nik gaitzetsi bainituen haiek; gero, apurka-apurka, joan ginen adiskidetzten.

Berehala argitaratu zenuen beste liburua: *Desandar el laberinto: Introspección en la feminidad contemporánea.* Zuzenean aipatzen da emakumeen menderakuntza.

Hara, egia esango dizut, liburua hori idatzi nuen dibortziatzeko. Nire bizitza nahiko ezohikoa izan zen, ikasle izan nintzen Mexikon bolada batez, baina gero Latinoamerikan barrena ibilia nintzen militante internazionalista gisa. Kartzelatik irten nintzenean bizi izan nuen lehenengo aldiz halako bizitza normal eta egonkor bat; bikote batean, gainera, gizon batekin, ezkondu. Zer esango dizut ba, ez zitzaidan batere gustatu. Ez zuen funtzionatzen, eta kontua ez zen ez nuela maite nirekin hainbeste urtean egona zen hura, ez, kontua zen ikaragarria iruditzen zitzaidala gizon harekin bizitzea ezkontzaren pintoan,



eta nire kautan galdetzen nuela: baina zer da hau?

Uraren Gerra izeneko altxamendua izan zen 2000. urtean Cochabamba hirian, Bolivian. Bertan izan zinen.

1997an atera nintzen espetxetik, eta hainbat gauzatan aritu nintzen: eskolak ematen, gero Comuna izeneko argitalpen-proiektu bat abiatu genuen... Orduan, altxamendu- eta mobilizazio-garai bizi-bizia piztu zen herrialdean, Latinoamerikako beste hainbat tokitan gertatu zenarekin batera, gutxi gora-behera. Borroka askoz horizontalagoak ziren, autonomoagoak, subjektu askoz heterogeneoagoak osatuak... Eta, Bolivian, Uraren Gerra izan zen abiapuntua.

Zergatik gertatu zen altxamendu hori?

Kontzesioen gaiarekin dago lotuta. Garai liberalean, baliabide naturalen kontzesioak eman zitzaizkien enpresa pribatuei, haiek kudea zitzaizten, eta etekinak atera; hori zurrizko esaten zuten eraginkorragoa zela enpresa pribatuaren kudeaketa estatuarena baino, eta hori ez da egia inondik ere, baina tira, argudio hori erabili zuten. Orduan, AEBetako konpainia bati eman zioten Cochabamba hiriko eta inguruetako ura kudeatzeko kontzesioa, eta hango grina pribatizatzailea erotzekoa izan zen, ezarri zituzten baldintzak eskandalagarriak ziren.

Adibidez?

Bada, besteak beste, neurgailuak jarri nahi zituzten jendeak bere kabuz eta auzolanean eginak zituen putzuetan. Zuk zeuk egin duzu lan guztia eta hara non gringo bat datorkizun kuota bat kobratu nahian; zeren izenean baina? Ez dizu-eta ezertxo ere eman. Jakina, matraka teknokratikoak aletu zituzten, dotore-dotoreak, akuiferoari buruzko ikerketak egingo zituztela eta abar, baina jendeak erantzun egin zien: "Zuek ez diguzue ezer eman, ezta peso laurden bat ere, eta ura ez da inorena, ura denona da". Pribatizazioak talka egin zuen herritarrekin, eta hiria eta inguruak altxatu egin ziren.

Enpresak alde egin zuen, ezta?

Bai, Bechtel enpresa bota genuen, eta udal enpresa berreskuratu, baina ez genuen nahi alkateak aukeratzetik zuzendaria, zeren alderdien sistemak hautatzen baitzuen alkatea, eta desastre hutsa zen sistema hura, oraingoa baino okerragoa. Orduan, kontrol soziala izeneko zerbait hasi ginen sortzen, eta uraren batzordeekin eta auzoetako batzordeekin batera sortu genuen halako egitura bat, udal enpresa kontrolatzeko.

Zer moduz joan zen?

Maila txikian egin arren, ariketa benetan interesgarria izan zen, ikusteko nolako harremanak sortzen diren ins-

tituzioaren eta mugimendu autonomoaren artean. Konturatu ginen zer zaila den. Arazoa, hala ere, ez zen sistema zaharrean eraginkorrak izatea, baizik eta hori iraultzea. Berehala etorri ziren oztopoak, ez baikenuen lortu udal enpresaren jabetza-erregimena aldatzea, eta, beraz, udal enpresak kudeatzeko erregimena bete behar baikenuen nahitaez. Adibidez, uraren batzordeek asanblada erraldoi bat egin eta erabakitzen bazuten, kolektiboki eta lan handia egin ostean, hodi bat hemendik joan behar zela eta ez handik, bada hori ezin zuen enpresaren zuzendariak bakarrik erabaki, ez dakit nork eta badakit nork balioztatu behar baitzuten. Instituzioa ez da auto bat, bolante batekin, hara edo hona bideratu daitekeena. Itsasontzi bat da, olatuei eta enbatariei aurre egiteko gai dena, amarratzez osatua: bati jotzen diozunean, gai da kolpeari aurre egiteko, kargaren puska bat beste amarratzeetara bidalita. Horregatik da hain elastikoa, horregatik eusten dio, era-soak eraso.

Zure azken liburuan lantzen duzu instituzioaren eta mugimendu komunitarioaren arteko kinka hori.

Nire asmoa ez da berriro ere ezartzea aspaldiko eztabaida hori, antzua iruditzen baitzait gainera, ea hauteskunderen bidetik ala bide autonomotik jo behar dugun. Saiatu behar dugu dualtasuna



Azken hitza: Gobernuaz eta botereaz

“Sarritan etortzen zait gogora Cochabambako Uraren Koordinakundean aipatzen genuen lelo bat: Gobernuaren arazoa Evorena da; boterearen arazoa, ordea, gurea”.

ulertzen ez harreman binario bezala, hau ala bestea, baizik eta zeruertz moduan, elkar osatzen duten harreman moduan. Horretan oso lagungarri zaitugu feminismoa. Irudikatu behar dugu mugimendu-estatu harremana, eta ez tematu estatua dela eragile bat eta bakarra. Ez dugu uste Gizona denik eragile bat eta bakarra, ezta? Ba berdin.

Mexikon bizi zaren arren, gertutik jarraitu dituzu azken hamarraldian Bolivian gertatu direnak. Zer iritzi duzu?

Aurreko galderan aipatu didazun kinka horren harira, ez daukagu erantzunik, baina serio hartu behar ditugu arazoak, eta Latinoamerikako gobernu aurrerakoien adibidea argigarria da. Boliviaren kasuan bi aro daude, argi eta garbi. Lehena, 2006 eta 2009 bitartean, Evo [Morales] gobernuan zegoela jada: konstituzioa sortzeko asanblada oso interesgarri bat egin zen, hainbat gauza aurkeztu ziren eta hainbat gauza idatzi ziren herrialdeko konstituzioan, zenbait urte lehenago ezin izango genituzkeenak amestu ere.

Zerk zapuztu zuen hasierako itxaropen hori?

Instituzioaren eta estatuaren bidea hartzen baduzu, jakin behar duzu zertarako zauden hor, zer lortzeko. Gizarteak edo mugimendu autonomoak argi izan behar ditu gutxieneko batzuk, eta horietan ezin da amore eman. Nire eta beste hainbaten kasuan, gutxieneko oso gutxieneko bat zen herrialdearen ekialdeko lurjabe oligarkek ospa egin behar zutela, izan ere, gobernu militarrek lurrak eman zizkietelako baino ez baitzeuden han. Hori aldatu beharra zegoen! Baina ez zen aldatu. Eskuin oligarkako alderdien tema baretzeko, ezabatu egin zen puska hori konstituziotik, eta, hala, eskuinak alde bozkatu zuen.

Zergatik egin zitzaizun hain etsigarria?

Nik ulertzen dudun moduan, muga jakin bat zeharkatuz gero, goikoek ekinean segituko dute, oraingoan hau eta hurrengoan beste hura irents dezazun. Beren zuribideak azalduko dizkizute, noski, apain askoak, kontua da ea aditu nahi diezun. ■

Alberdi

EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA

Opari berezietarako
Pertsonalizatuak
Prezio aukera desberdinak

ARGIA

www.argia.eus/denda/makilak
denda@argia.eus | 943 371 545

Bakar-jokoan tranpak egiten

Europar Batasunaren etorkizunarentzat erabakigarria da 2017. urtea. Hauteskunde moduko hiru *match point* salbatu beharko ditu gutxienez: Herbehereetakoak, Frantziakoak, Alemaniakoak eta, agian, Italiakoak ere bai. Lehenengoa pasatu da eta establismenta kontentu dago emaitzarekin. Azkenean, Geert Wilders eta bere Askatasunaren aldeko alderdiak ez ditu hauteskundeak irabazi. Halere, ezin ukatu daiteke igoera handia izan duela, bigarren indarra izatera pasatu da eta bost eserleku gehiago irabazi ditu. Orotara, eskuin populistak hogeita bost eserleku izango ditu, aurreko legegintzaldian baino zazpi gehiago.

Eskuin populista kategoriapen alderdi oso desberdinak sartu ohi dira. Guztiek konpartitzen duten elementua da nazionalismo etnikoa, eta beraz, immigrazio politika murriztaileen alde egiten dute eta gradu batean edo bestean islamofoboak dira. Hortik aurrera, ideologia aldetik sentsibiltate desberdinetakoak daude. Adibidez, Fronte Nazional frantsesak proposamen sozialdemokrata erradikalak ditu arlo sozioekonomikoan, Wildersek aldiz, agenda neoliberal bat bultzatzen du nagusiki. Beste desberdintasun garrantzitsu bat da alderdi bakoitzak duen izaera. Fronte Nazionala hauteskunde presidentzialak irabazteko estrategia batean ari da lanean, horregatik, bere programan aspektu batzuk azpimarratu arren, oro har, proposamen integral batean oinarritzen da. Askatasunaren aldeko alderdia ordea, gai bateko alderdi gisa izenda genezake, hau da, bere programako aspektu gehienek ez dute koherentziarik, inportantea islamofobia da.

Herbehereetako hauteskunde sistema munduko proportzionalenetako bat da, barruti bakarrean 150 diputatu esleitzen dira. Hautagaitza batek botoen



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Eskuin populista kategoriapen alderdi oso desberdinak sartu ohi dira. Guztiek konpartitzen duten elementua da nazionalismo etnikoa eta, beraz, immigrazio politika murriztaileen alde egiten dute eta gradu batean edo bestean islamofoboak dira. Hortik aurrera, ideologia aldetik sentsibiltate desberdinetakoak daude

%0,67 ateratzen badu, eserleku bat eskuratzen du, beraz, edozein muturreko proposamen Parlamentuan erraz sartu daiteke eta eztabaida politikoa baldin-

tzatu. Bestalde, populistek oso zaila dute gobernuan sartu ahal izatea eta ia ezinezkoa boterea bakarrik lortzea. Hori sistema presidentzialistetan gerta daiteke, irabazleak jokoan dagoen kargu bakarra lortzen duelako, horregatik Trumpek irabazi ahal izan du AEBetan edo Ezker populistak Latinoamerikan. Berriz, sistema parlamentario proportzionaletan sentsibiltate politiko desberdinen artean sakabanatu egiten da botoa. Koalizioak behar izaten dira gobernuak osatzeko. Wildersek ondo daki hori, horregatik, gobernuak lortu baino, agenda politikoa baldintzatu eta bere ideiekin gainontzeko alderdiak kutsatzea du helburu. Adierazpen politiko probokatzailerekin harrabotsa sortzen du, baina ezin uka daiteke bere ikuspegitik emaitza onak lortu dituela. Bai, Wildersen alderdi ohiak, Askatasunaren eta Demokraziaren aldeko Alderdi Popularrak, irabazi ditu hauteskundeak berriro, baina zein preziotan?

Hauteskundeak izan baino bi aste lehenago Europako Batzordeak *paperik gabe* dauden milioi bat etorkin EBetik bota behar direla adierazi zuen. Hau gutxi balitz, hauteskunde kanpainako azkeneko astean Herbehereetako Gobernuak bere egin ditu Wildersen posizioak Turkiari dagokionean. Erdoganengo gobernuak kideen mitinak debekatu ditu eta Turkiako Kanpo Harremanetarako ministroari ez zion baimena eman Holandan lurreratzeko, nazioarteko legediaren mugak esploratzeko eta NATOko aliatu batekin liskar bat irekiz. Ondorioz, lehen ministroak eta koalizio gobernuan jarrera gogorrena izan duten demokristauak beren saria jaso dute hauteskunde emaitzetan. Bitartean, ezkerria inoiz baino ahulago agertu da 37 diputaturekin (14 Sozialista-Ezker Unitarioa, 14 Ezker Berdea, eta 9 Laboristak). Seguru eskuin populista galtzen ari dela? ■

Belarriaren gozamenerako

Josu Zabaleta itzultzailearen “Belarria da gramatika” esaldia Ibon Sarasolak jasotzen du *Bitakora kaiera* liburuaren hasieran, ondorengo tesiaren iragarle: “Belarria gidari harturik idazten duten egungo autore onak irakurriz lortuko du idazle batek idazle on izatea, hots, idazle onaren belarria izatea. Eta egungo euskararen benetako gramatika izango da idazle on horiei darien *gramatika* biltzen duena”. Euskaltzaindia utzi duen hiztegegilearen aburuz, belarri oneko idazle horiek osatzen dute euskararen akademia. Hil-dakoen artean Koldo Mitxelena (gorra zen) aipatzen du; oraingoetan, berriz, Anjel Lertxundi, Bernardo Atxaga eta Iñaki Segurola, besteak beste.

Hiruretako batek –asteasuarrak– obra baten balioa nabarmendu berri du, belarri oneko idazle bihurtzeko lagungarri izan daitekeelakoan: Hauspoak euskara batuan argitaratu duen *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*. Txukun idazten ikasteko hori bezalako lezio gutxi haren ustez. Azken egunetan, H-rik gabeko Auspoaren obran murgilaldi batzuk eginak ditut Interneten, Antonio Zabalak argitaraturiko liburu guztiak sarean eskura ditugula aprobetxatuz. Eta askotan gogoratu dut Atxagak esanikoa. Izan



Fermin Erbiti

KAZETARIA

Dena esana badago ere, garrantzitsuena falta da: kantuari eman beharreko grazia, kolorea, sentimendua, dirdira, arima. Eta hori non ikasten da, hori nork erakuts dezake?

ere, handik eta hemendik pasarte batzuk hartzea, tolosarraren aurkezpenak barne, haize freskoa da irakurlearentzat. Ez dakit hortik idazleak etekinik aterako duen; irakurleak bai, dudarik gabe, irakurlearen belarriak batez ere. Aukeran beste paraje batzuk nahiago

dituena ere, gozo eta eroso ibiliko da istorio horietan.

Belarriaz ari garenez, musika aipa genezake eta literaturarekin alderatu. Partitura dugu musikaren gramatika, bete beharreko arau guzti-guztiak aletzen baititu: tonua, noten iraupena, isiluneak, komak, errepikapenak... Dena esana badago ere, garrantzitsuena falta da: kantuari eman beharreko grazia, kolorea, sentimendua, dirdira, arima. Eta hori non ikasten da, hori nork erakuts dezake? Gure koruko zuzendariak galdera erretoriko horietan egin ohi ditu, etsiturik, Mozart edo Bachen melodia zoragarria kantu zakar bihurtzen dugularik.

Artikuluaren amaierara heldu eta YouTube sartu naiz, Pachelbel-en *Kanona* entzuteko, lerro hauek boro-biltzeko lagungarri izan zitekeelakoan. Zenbaterainoko lana dago horren atzean? Pare bat ordukoa edo urtetakoa? Ideiarik ere ez. Kontua da oraintzen entzuten ari naizen nota simple eta sarkor horiek barnea inarosten digutela, hunkitu egiten gaituztela.

Artea esaten zaio horri. Hori lortzeko grazia nola eskuratzen den esaten zaila da. Zorionez, eta hori da garrantzitsuena, guztion eskura dago. Literaturan eta musikan. Klik bakar batera, askotan. ■


MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailetarako
Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otadui Gotzaina kalea, 27 - Oñati


EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
tradebi@tradebi.com

LUAarkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com
Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña

Ogia versus giza eskubideak?



Joxe Iriarte Bikila
ALTERNATIBAKO KIDEA

Karl Marxek zioenez, sabela hutsik ezin da filosofian murgildu. Giza Eskubideen Kartak oinarrikotzat jotzen du, besteen artean, giza-kiak ondo elikatzeke duen eskubidea. Aurtengo urrian mendeurrena egingo duen Lehen Iraultza Sozialista, “ogia, bakea eta askatasuna!” aldarriekin hasi zen.

Alabaina, kapitalismo gerrazale eta neo-liberalaren hegemonia itogarriaren garaiotan geroz eta zailagoa zaigu eskubideak modu banaezinean uzartzeari. Kapitalismoak, bata edo bestea, eskubide desberdinen artean aukeratzera behartzen gaitu. Adibide batzuk: lanpostuak (ogia) ala ingurumena (osasuna). Ikatx meategi kutsatzaileak, fracking-a, zentral nuklearrak edo automobil gehiago produzitzea. Bestea, ogia edo giza eskubideak: armagintza, aeronautika militarra, lehergailu lan-tegiak eta abar.

Tranpa horretatik ezin atera dabilta ia sindikatu guztiak, beste kontsiderazioen gainetik lanpostuei lehentasuna ematen diotenean. Lehentasuna, nahiz eta kongresuetan bere egiten duten garapen jasagarriaren kontzeptua. Zer esanik ez, alderdi politikoak, gehienak boto emaileen iritzien zordun. Badaude salbuespenak. Ezagutzen dut Leongo alkate ekologista bat, zeinak itxitako meategia irekitzeari uko egiteagatik, bere herriko biztanleek ia lintxatu zuten. Jakina, alkatetza galdu zuen.

Dilema larri horretan harrapatuta ikusi nuen Podemoseko Jose Maria Gonzalez *Kichi*, Cadizko alkatea, Jordi Ebolek oso modu zorrotzean galdetu zionean: “Aspaldiko antimilitarista eta giza eskubideen aldeko ekintzailea, eta halaber Espainiako langabezia-tasa handiena duen Cadizko alkatea. Ados zaude Saudi Arabiako monarkia misogino giza eskubide bortxatzailea izanda, harekin Cadizko ontzian gerraontzi militarrek eraikitzeke?” “Bai. Gure langileek behar dituzte lanpostu horiek”. Erantzunak ez ninduen harritu, bai ordea, penatu.

Kichi alkatea ez baita ohiko politikaria. Zintzoa da, bere herriari emana, instituzioen errapetik edaten ez duena eta segur aski alkatetza uzten duenean bere ogibidera eta oinarriko militantzia itzuliko den horietakoa. Patuak edo dena delakoak libra nazala batzuen giza eskubideak besteenaren gainetik hautatu edo jarri beharreko ataka gaitzetik. Zalantzak zalantza, uste dut badaudela zeharkatu ezin diren murrak (gorriak?), eta horietako bat da ezin dela, soldata baten truk urrutiko gizakiak zantzetan erabiltzen den tresneria fabrikatzearekin bat egin.

Beste bideak. Borrokatu dezagun, esate baterako Oinarriko Errenta Unibertsalaren alde. Horrek herritarroei emango liguke, kaltegarriak, arriskutsuegiak edo beharrezkoak ez diren industriei muzin egiteko aukera. Errenta horren nondik norakoak beste baterako. ■

Tasunkeriak



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Argentinan egindako film bat ematen ari dira Espainiako telebista batean. Publiko guztiek ikusteko moduko pelikula da, eta mundu hispanoan zein Hegoaldeko bazterrik euskaldunenean –barka, ARGIAko irakurle horiezaguna dugun *Ratoncito Pérez* pertsonaia da protagonista.

Filma ikusten hasi zarete egongelan, etxeko bizilagun haur-helduak. Berehala ohartu zara, ongi bezatua baituzu belarri pareta hizkuntza kontuekin eta hizkuntza kontuetara, istorio-ko pertsonaiek ahotan darabilten espainola ez dela ozeanoaz bestaldeko Argentinakoa, Espainiako gaztelania estandarra baizik. “Ez

zaizue arraroa iruditzen?”, galdetu diezu sofa-kideei.

Intuizio handiko jokaldi bat egin nahian, telebistako urrutiko agintea hartu eta, aparatuak ematen dituen abantaila teknologikoak baliatuta, jatorrizko bertsioan paratu duzu filma. *Argentinaz* hasi dira pertsonaiak. Une horretan, baina, espero ez zenuen matxinada txiki bat etorri zaizu: bertsio normala (*sic*) nahiago omen dute zure ondoan jarrita daudenek. Jatorrizko bertsioaren pedagogia egiten saiatu zara orduan. Alferrik.

Fikziozko soinura itzuli zarete. Normaltasunaren eta (aipatu ez diren) beste *tasunkeria* batzuen izenean. ■

Gainbehera

Solasaren haria galdu dut lagune-tako batek “gainbeheran hasita gaudenok” lasai-lasai bota due-nean. Batzuetan gertatzen zait. Arreta emateko aurpegi automatikoa jarri eta neure barrenean biltzen naiz, maiz hel-buru zehatzik gabe, nire pentsabidea-ren jitoaz ezaxola; besteetan, gero eta gehiagotan zorigaitzez, iritzi zutabe edo artikulu baten ernamuina ikuskatzen dut eta, orduan gogoaz askatzeko itxura egiten badut ere, metro gutxien tartea-rekin jarraikitzen diot, nora eramanen eta nik horri etekina nola aterako. Horrelakoetan, susmoa dut, nire hausnar-ketek itzulinguru zorabiagarria egin ostean, toki jendetsu eta ezagun batera bideratzen nautela.

“Gainbeheran hasita gaudenok” esan eta berehala galdetu diot neure buruari –ez solaskideari, haren jarduna begirunerik gabe ez eteteko– plural inklusibo horretan ni sartuta nagoen. Berehala erantzun behar izan diot neure buruari, lagunaren asmoa beste bat izan balitz ere, nekez aurkituko genukeela esaldi hori aplika ez dakiokenik, batez ere pixka bat zuzendu eta “gainbeheran gaudenok” esan izan balu. Beraz, zalantza izpirik gabe, nitaz ari da. Beste galdera azkar eta simultaneo batzuk bururatu zaizkit: nitaz ari da adin zehatz bat dudan heinean, garai baten kidea naizen heinean, genero batekoa edo, demagun, hizkuntz gutxitu eta galtzear dagoen baten hiztun agonikoa naizen neurrian.

Ingurura begira eta ez dakusat gainbeheraren gomuta ez dakarkidanik.

Gainbehera da gure osagai nagusia. Gainbeherak pilatzen goaz, bata bestearen barruan gordeaz, bata besteaz erdituta. Ezin diogu munduari begiratu gainbeheraren iragazkiaren bitartez ez bada. Gizabanako baten gainbehera modu askotara neurtzen ahal da eta gaitz izaten da benetakoagoa zein



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

den zehaztea. Gainbehera biologikoa, zelularra: zein momentutik aurrera gorputza hasten den bere geneak beste gorputz batzuetan iraunarazteko efikazia galtzen. Gainbehera intelektual, sozial, kultural edo are linguistikoaren pertzepzioa begitazioa da, proiektzio bat, eta gure energia gehienak haien kontra eginez xahutzen ditugu, funtsean jakinik ez xahututa ere ondorioa berbera litzatekeela.

Oker gogoratzen ez badut –ohikoe-na oker gogoratzea bada ere–, Xabier Montoiak behin esan zuen literaturaren benetako engaiamendua denok hiltzera goazela irakurleari begien aurrera ekartzean datzala. Bestelako arteetara aplikatu ahal zaio gogoeta. Buruz eta, beraz, ez modu fidagarrian aipatuko dudan beste poeta bat, Philip Larkin, zeharo harritzen omen zen jendea ospitaleetara joanda, edo anbulantzia bat ikusita, kalean garrasika ez hasteaz, bizitzaren egiazko argumentuaz, bakarraz, ohartuta. Baina mendeetan findu ditugu azken unera arte ezikusia egin ahal izateko baliabideak (haietako bat mehatxua gutaz kanpoko giza eremu zabalago batean proiektatuta). Gainbeheraren noizbehinkako aitortzak dira itzurtzen uzten ditugun lekukotasun bakanetakoak. Horregatik beharbada galdu dut solasaren haria, ez pertsona arreta-gabe edo ameslaria naizelako, edo iritzi artikulu honetarako edo beste baterako bazka bilatu behar dudalako edozein unetan eta edozein elkarriketatik, baizik eta funtsean une bakan eta berezi bat bizi izan dugulako, gehienok arreta ez eman nahiago izan badute ere: elkarri aitortu diogu zelularki, autobiografikoki, sozialki edo kulturalki izateari uzteko bidean gaudela, baina solasak berak kontsolatu gaitu, istant batez bada ere, eta elkarrekin egoteak, adiskideak izateak edo mundua beste batzuentzat hobetzeko aukerak ere. ■

ARABAKO Bertsolari Txapelketa 2017

FINALA

GASTEIZ

Printzipal Antzokian

APIRILAK 1

Iarunbata 17:30

Gai-emallea:

Aintzane Irazusta Arzallus

Aurkezlea

Nieves del Alamo Gil



Asier

Otamendi
Alkorta
(GASTEIZ)



Oihane

Perea
P. de Mendiola
(ZALDUONDO)



Serapio

Lopez
Ortueta
(BARANBIO)



Xabi

Igoa
Eriz
(ARAMAIO)



Iñaki

Viñaspre
Simon
(GASTEIZ)



Manex

Agirre
Arriolabengoa
(ARAMAIO)

www.bertsosazale.eus/araba



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

Babesle nagusiak.



Vital gizarte ekintza

artepan

Udala.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Antolatzailea.



ARGIA

EUSKARA IKASTEN DOAKOTASUNA AGENDA POLITIKOAN

Betiko aldarrikapena da: herritarrek euskara doan ikasteko aukera izan dezatela. Gauzatetik urrun dago, baina badirudi EAEko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2017-2018 ikasturtean pauso sendoa emateko asmoa duela: B2 mailara arte doan izango da. Horretarako baldintza ordea, ez da askoren gustukoa: matrikula ikasleak ordaindu behar du eta azterketa gaindituz gero soilik itzuliko zaio dirua.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Euskal Autonomia Erkidegoan, gaur egun, euskara ikasteko beka eta diru-laguntza sistema konplexua dago. Esan nahi da ez dagoela batasunik eta udal, foru aldundi eta Eusko Jaurlaritza mailako diru-laguntzak daude. Bakoitzak bere irizpideak ditu. Lasai asko gerta daiteke udalerrri batean doan ikasteko aukera izatea eta beste herri batean ez.

EAJ eta PSE-EE alderdiek gobernu itunean doakotasuna jaso dute. Iragarri dute B2 mailara arteko bidean doakotasuna lortzeko lan egingo dutela eta HAKOBAn (Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordea) prozesua lantzen ari direla. Hainbat alderdik eta euskaltegi pribatu homologatutako doakotasuna beste era batera ulertzen dute. Gobernuak bi alderdiek

egin duten iragarpenak zera esan nahi du: ikasleak matrikula ordainduko du, gero dagokion mailaren azterketa egingo du eta gainditzen badu dirua itzuliko zaio, eta bestela ez. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 1.250.000 euro bideratuko ditu pauso horiek emateko.

Azterketan pot eginez gero ordaindu egin behar?

Euskaltegi pribatuen sektoreak eta hainbat alderdik ontzat eman dute gobernuak doakotasunean pausoak emateko ireki duen bide berria, baina hainbat irizpiderekin ez daude ados.

EH Bilduk martxoaren 9an legez besteko proposamena aurkeztu zuen euskara ikasteko doakotasunaren bidean urratsak



emateari buruz. Alderdiaren ustez, EAEko herritarrek bi hizkuntza ofizialak ikasteko aukera izan behar dute eta ez da hala gertatzen, euskararen ikas prozesuak kostu ekonomiko adierazgarria duelako. Onartzen du herritarren ahalegin ekonomikoa arintzeko bideak badirela, beken eta diru-laguntzen bidez. Laguntza ekonomikorako sistema anabasa dela dio, eta sistema bateratzea eskatu du. Hiru eskaera zehatz egin ditu alderdiak. Batetik, 2018-2019 ikasturtetik aurrera diru-laguntza sistema bateratua, unibertsala eta berdintasunezkoa izan dadila, eta beraz C1 mailara arte (maila hori barne) ikasketa prozesua doakoa izan dadila. Bestetik, ikasturtea doan izateko baldintza ez dadila izan azterketa gainditzea, baizik eta helburua



Argazkian, Donostiako AEK-ko Amara Berri euskaltegiako ikasleak doakotasuna aldarrikatzen. Kontseiluak ere kanpaina abiatu berri du "Euskara, denontzat doan" lelopean. AEK, IKA, Maizpide, Urrats eta Hitzez euskaltegiak dira kanpainaren bultzatzaileak.

izan dadila euskarazko komunikazio gaitasuna lortzea eta eskola orduen aprobetxamendua. Hirugarrenik, urrats horiek diseinatzeko eta erabakitzeko administrazio publikoekin eta sektoreko eragileekin elkarlanean aritu dadila Eusko Jaurlaritza. Podemos-Elkarrekin alderdiak ere doakotasuna ez du lotu azterketa gainditzearekin, ikasleek konpromiso mailak lortzearekin eta asistentziarekin baizik.

Lanbide, lehen urratsak ematen

Euskal Enplegu Zerbitzuan, Lanbiden, ez da egon euskara ikasteko edo eskaintzen dituen prestakuntza ikastaroak euskaraz egiteko ia aukerarik. Atea pixkatxo bat ireki da 2016-2017 ikasturtean. HABEK eta Lanbidek hitzarmena sinatu zuten eta ho-

rri esker hainbat langabek euskara ikasteko aukera izan dute. Hiru alorretan, hau da, merkataritzan, ostalaritzan eta gizar-tearentzako zerbitzu sozio-sanitarioetan izena eman zuten langabe guztiei, matrikula orriaren bidez, euskara ikasteko aukera eman zitzaion. Hiru alor horiekin abiatzea aukeratu zen, hain justu, lanean hizkuntzak erabiltzeko aukera ematen dutelako. Hitzarmenaren ondorioz 92 lagunek eman zuten izena eta orain euskara ikasten ari dira. A1, A2, B1 eta B2 mailetan ari dira ikasten, Araban 15 herritar, Bizkaian 53, eta Gipuzkoan 24. Eusko Jaurlaritzaren asmoa 2017-2018 ikasturtean Lanbiden izena emanda dauden langabetu guztiei euskaltegieta euskara ikasteko aukera ematea da.



KANPIN EKOLOGIKOA

Arbizu (Nafarroa)

☎ 848 470 922

info@campingarbizu.com

www.campingarbizu.com



eLEKTRIKA
G R A B A K E T A K

-Grabaketak estudioan eta zuzenekoetan

-Nahasketa analogiko profesionala

-Zuzeneko teknikaria

Ander Barriuso Muñoa

<https://elektrikagrabaketak.bandcamp.com/>

<https://www.facebook.com/elektrikagrabaketak/>

elektrikagrabaketak@gmail.com

tfnoa: 687046386



TREBIÑU
sagardotegia

Ipar Kalea · Askartza
(Gasteiztik 20 minutura)
☎ 945 24 48 52 / 657 736 599

www.trebinu.com




**Kultura
jasangarria
izan dadin**

ecofestes
Irtenbide ekologikoak zure ekitaldietarako

www.ecofestes.com

**PYRÉNÉES ATLANTIQUE
HOTELA**



64310 SENPERE

T. 05 59 54 02 22 · hotel-pyrenees@wanadoo.fr
www.hotel-pa.com



BRINTZA
AHOLKULARITZA · CONSULTORIA

**Enpresa eta autonomoi
aholkularitza eskaintzen diegu**

Urbietan, 15 · 20120 Hernani
Tel.: 943 33 12 67
www.brintza.com

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification

IKASLE KOPURUA EUSKALTEGIETAN

2017-2018 ikasturtean **HABEk 33 milioi euro** izango ditu, 2016an baino 319.000 euro gehiago. Euskaltegi homologatuak **%6ko igoera** izango dute diru-laguntzetan.

EUSKALTEGI MOTA	IKASLE KOPURUA	
	2016-2017	2015-2016
Euskaltegi publikoak	8.555	8.769
Euskaltegi pribatu homologatuak	21.876	22.073
Autoikaskuntza zentroa	1.197	1.269
Guztira	30.993	31.423

IKASLEAK MAILAKA (2016-2017)

A1	%15,78
A2	%13,32
B1	%17,38
B2	%22,25
C1 (EGArekin parekoa)	%27,87
C2	%2,09

IKASLEAK ADIN TARTEKA (2016-2017)

16-25 urte	5.777
26-50 urte	19.337
51-65 urte	4.767
65 urtetik gora	1.112
Guztira	30.993

Iturria: Eusko Jaurlaritza

EH Bilduk legez besteko proposamena aurkeztua du Eusko Legebiltzarrean Lanbidek sustatzen dituen prestakuntza ekintzetan bi hizkuntza ofizialak berdintasunez integratzeari buruz. Koalizioak kritikatu du Lanbidek ehunka ikastaro sustatzen dituela langile eta langabe-tuentzat, eta euskarazko edo euskararen bidezko ikastaroak "urriak eta anekdotikoak" izan direla. Rebecka Ubera EH Bilduko legebiltzarkideak hainbat ikastarori buruz galdetu zionean, Enplegu eta Gizarte Politiketarako sailburuak hone-larantz erantzun zion 2016ko abenduaren 20an: "Ikastaro horietako bat bera ere ez da euskaraz egin". Ikastaroak euskaraz ezin ziren egin, baina Lanbideren eta HABEren arteko akordioaren bidez euskara ikasteko eskolak jasotzeko aukera bazegoen, ohiko curriculumetik kanpo eta beraz eskola orduetatik kanpo. EH Bilduk kritikatu duenez, Lanbideko ikastaroetan lanari lotuta ingelesa ikas daiteke, baina ez euskara. Adibidez, taberna zerbitzari izan nahi duenak bere

» Jaurlaritzaren asmoa Lanbiden izena emanda dauden langabetu guztiei euskara ikasteko aukera ematea da

formakuntzan ingelesa ikasteko modula dauka, euskarazko modula berriz ez. Ondoko egoerak ere deskribatu ditu koalizioak legez besteko proposamenean: "Jendearentzako arreta" izeneko ikastaroak daude hainbat hizkuntzatan; "Komunikazioa katalanez" eskaintzen da; eta ingelesa A1 mailan hasi eta C1 mailara arte ikas daiteke. Euskaraz ez dago horrelakorik. EH Bilduk gogoratu du EAEko Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen dekretuak dioela langileek eskubidea dutela Enplegurako Lanbide Heziketa EAEko bi hizkuntza ofizialtako edozeinetan jasotzeko.

Mertxe Mugika, AEK-ko koordinatzaile nagusia

“Eskatzen dugu doakotasuna ez egotea emaitza akademikoari hain lotua”

Korrika betean harrapatu dugu Mertxe Mugika. Lanpetuta, baina euskaltegi pribatuen aldarrikapen historikoez hitz egiteko prest: ikasleek doan ikasteaz eta euskaltegiek finantzazio egonkorra edukitzeaz. Biribilgunean bueltak emateari utzi eta hitzetatik ekintzetara igarotzea eskatu du AEK-ko koordinatzaile nagusiak.



ARITZ LOIOLA

EAEn Hizkuntza Politikarako Sailburuordea aldatu da. Egon al zarete beraiekin, eta zer esan diezue?

Aurreko ekipoari esandako gauza berberak esan dizkiegu. Urte asko daramagu eskatzen helduen euskalduntze alfabetatzearen, eta batez ere gure moduko euskaltegien, hau da, ekimen sozialeko euskaltegien egoera normalizatzeko. Ea legealdi honetan neurriak jartzen diren eta biribilgunean bueltak emateari uzten diogun. Beraien esanetan ere, horren beharra dago.

Guk gobernu itunean agertzen dena aintzat hartu dugu. Gobernu itunak dio B2 mailara arte euskara ikastea doakoa izan behar dela. Guk diogu esanetatik ekintzetara pasa behar dela. B2ra arte doakoa izateko baliabideak behar-beharrezkoak izango dira.

Ez da oso seinale ona gobernu berriari gauza berak esaten ibiltzea.

Aldaketa badago bai gobernu itunean

baita EAJren programan ere. Alabaina, aurreko legealditik datozen gaiak dira. Doakotasuna agenda politikoan sartu behar dela esaten aritu gara azken urteetan eta gobernu itunean B2ra arteko doakotasuna jasota zegoela jakin genuenean esan genuen: “Lortu dugu guk proposatutakoa aintzat hartzea”.

Aurreko legealdian, ekimen sozialeko euskaltegien egonkortasuna lortzeko bidean, euskaltegi estandar baten kostua kalkulatzeko lana ere egin zen, nahiz eta dokumentu hori ez dugun ezagutzen oraindino. Beraz, lan batzuk abiatuta zeuden.

Koalizio gobernuan EAJ eta PSE-EE dauka. Bigarrenak hauteskunde kanpainan ez du preseski euskararen aldeko keinu politik egin. Koalizioan eragingo duela uste al duzu?

Ez dugu uste kanpainan erakutsi duen jarrera gailenduko denik. Horrelako diskurtsoek ez dute lekurik, kalean beste

“Espero dugu datorren ikasturtean Lanbiden erregistratutakoek nahi duten euskaltegiaren izena emateko eta doan ikasteko aukera izango dutela”.

jarrera batzuk daude, eta euskararen aldekoak dira, nahiz eta erreakzionarioak egongo diren. Lan Eskaintza Publiko bat dagoenean jendea normaltasunez dator euskaltegiara hura prestatzera, onartuta dagoelako lanpostu batera heltzeko euskara beharrezkoa dela. Arartekoak gomendioa egin du, hau da, Lanbidek ere euskara eskaini behar duela, lana aurkitzeko bidea zabaltzen duelako. Batzuentzat konfort egoeratik mugitzea zaila izango da, baina olatuak beste norabaitera eramaten gaitu. Une honetan 30.000 herritar euskara ikasten ari da. Kopuru horrek erakusten du gizarte honek euskara behar duela, lanagatik, euskaraz bizi nahi dutelako, inguruak

eraginda euskara erabiltzera bultzatuta daudelako. Sarritan ez dago beharkizunik.

Beraz, PSE-EErena bezalako diskurtsoak, eta doakotasunera heltzea adibidez, ez datoz bat.

Ikasleek euskara doan ikasi ahal izatea urtetako aldarrikapena da. Zer dago egin eta zer geratzen da egiteko?

Aldarrikapen historikoa da. Pausoak eman dira. Hala ere, sekulako anabasa dago. Ikaslea non bizi den beka edo diru-laguntza sistema aldatzen da. Esate baterako, EAEko ikasle batek, datutegian badago eta maila bat gainditzen badu, beka dauka. Bizkaiko Foru Aldundiak beste sistema bat dauka, ikasleak azterketa gainditzen badu hurrengo mailako matrikula ordaintzeko erabili behar du beka, bestela galdu egiten du dirua. Arabakoa beste modu bat ari da prestatzen: diru-laguntza ez du lotuko emaitzarekin, baizik eta izena ematearekin eta eskoletara joatearekin. Gipuzkoakoak beste modu bat dauka, udal bakoitzak ere berea dauka... Sekulako anabasa, eta hala ere, sistema guztiak ongi etorriak dira.

Beka sistema ordenatu behar da. Sistemak bidezkoa, berdintasunezkoa eta unibertsala izan behar du. Ikasleak ordaindu beharrekoa mugatu egin behar da, bai ala bai. Tasak ezarri daitezke, denei berdin eragiteko, udal euskaltegien matrikulazioak merkeagoak baitira, adibidez.

B2 mailara arte doan izango da baldin eta azterketak gainditzen badira, bestela ez.

Emaitza akademikoari hain lotua ez izatea eskatzen dugu. Herritar batzuek matrikula ordaintzeko ere (nahiz eta azterketa gainditutakoan dirua itzuli) zailtasunak dituzte.

Azken finean, euskaltegien helburua zein da, tituludunak ateratzea edo euskaraz egunero biziko diren pertsonak ateratzea? Guk euskara erabiltzaileak izatea bultzatu behar dugu eta ez tituludunak edukitzea. Titulua berez ez da ez ona ez txarra, baina helburua barik bitartekoa izan beharko luke eta horrelako neurriek sarri horretara eramaten gaituzte, helburua titulua bihurtzea.

Guk ez dugu esaten inondik inora “ate irekiak” egin behar denik, baina sistema bat baino gehiago dago aukeran eta diru-laguntzak ordenatu behar dira.

“Herritar batzuek matrikula ordaintzeko zailtasunak dituzte, nahiz eta jakin azterketa gainditutakoan dirua itzuliko dietela”

“Guk ez dugu esaten ‘ate irekiak’ egin behar direnik, baina sistema bat baino gehiago dago aukeran eta diru-laguntzak ordenatu behar dira”

“Udal euskaltegien eskola ordua 74 eurotan dago irakaslearentzat eta ekimen sozialekoetan 37 eurotan; amildegia konpontzea eskatzen dugu”

Lanbide hasi da euskara ikasteko aukera ematen.

Prestakuntza lerro handia dauka eta orain arte euskara ez da egon. Orain sinatu dute hitzarmena Lanbidek eta HABEk. Espero duguna da datorren ikasturtean Lanbiden erregistratutakoek nahi duten euskaltegian izena emateko eta doan ikasteko aukera izango dutela. Gainera, hasierako pausoak ondo pentsatuta zeuden, erabilerari lotuta, hau da, besteak beste ostalaritzako eta merkataritzako ikasleei begira.

Euskaltegi homologatuen urtetako beste aldarrikapena finantzazio egonkorra da. Eusko Jaurlaritzaren bidez kostuen %70 estaltzen duzue eta %80ra iritsi nahiko zenuketela diozue.

Denei pelikula bera kontatzen diegu. Helduen euskalduntze alfabetatzea bi

zatitan banatuta dago, udal euskaltegiak eta ekimen pribatuko euskaltegiak. Udal euskaltegiek eskaeraren %30 hartzen dute eta besteek gainerakoa. Bien artean dagoen aldea izugarria da, bai langileen lan baldintzetan baita ikasleek ordaindu behar duten matrikulan ere. Baina zerbitzu bera ematen dugu, eta zerbitzua ez da heltzen leku guztietara, hau da, hiriburuetan ez dago udal euskaltegirik. Alde batetik, bai ala bai parekatu egin behar dira euskaltegiak. Udal euskaltegien eskola ordua 74 eurotan dago irakaslearentzat eta ekimen sozialekoetan 37 eurotan. Amildegia konpontzea eskatzen dugu, ez udal euskaltegiakoei kopuruak jaitea. Bestetik, diru-laguntza kontzeptua gaindituko duen zerbait egon behar da, ikastetxeekin, EITBekin, unibertsitatearekin egiten den bezala. Ezin gara ibili urteko aurrekontuei edo garaian garaiko gobernuari begira.

Doakotasunaz eta finantzazioaz hitz egin dugu. Zein beste aldarrikapen duzue?

Euskara mailaren egiaztatze sistema ondo garatzea nahi dugu, eta horrek lotura zuzena dauka eredu pedagogiko eta didaktikoarekin. Inbertsioak bideratu behar dira arlo pedagogiko eta didaktikora, ikasteko moduak eraldatzen doaz.

Alor hori oso landua zenutela uste nuen.

Bai administrazioarekin ari garenean bai kanpora begira, sarritan euskaltegiok ematen dugun irudia finantzazioarena edo diruarena da, eta pedagogian egiten ari den lan guztia faltan sumatzen dut. Orain Korrika gora eta behera gabiltza, baina aukera daukadan guztietan gustatzen zait arlo pedagogiko eta didaktikoa aipatzea.

Beste erronkarik?

Euskalgintza orokorrean hartuta, denbora askotxo daramagu elkarlana hitzaren atzean, eta gu horren bultzatzaile nagusietako bat izango gara, baina uste dugu berba bera agortzen hasita dagoela eta zerbait abiatu behar dugula administrazioaren eta gizarte eragileon artean. Biribilgunean bueltak emateari utzi beharra dago, eta hori talde berri honek [Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza] behin baino gehiagotan esan du. Nafarroan eta Iparraldean ere halako hotsak badaude. ■



ORAIN **KORRIKA**

Gipuzkoa euskara ere bada. Eta lurralde osoan euskara aukera-berdintasunean bizitza gu guztion nahia ez ezik, egitekoa ere bada. Askatasun osoz, zein hizkuntza erabili nahi dugun hautatzeko aukera izan dezagun herritar guztiok. Elkarbizitza linguistikoa, finean. Hitz eta jolas. Lan eta bizi. Euskaraz ere bai.

Euskara Gipuzkoa ere badelako. Bat eginda, gehiago garelako.



Makro-kartzela proiektua

Zubietako tatuaiak



Markel Ormazabal

IRUDIAK: EUROESTUDIOS SL-REN PROIEKTUA

Kartzelarik onena kartzela ez dena da, kantatu zuen bertsolariak, eta kartzelarik gabeko mundu bat eskatu zuen zorionekoa kartzela zigorrera kondenatu zuten. Ez dugu maite, edo hori diogu ahopeka, baina behar dugula uste dugu. Hauxe da egun kartzelari buruz sozietateak, oro har, egiten duen gogoeta. Alternatibarik ikusten ez dugula onartuta, auziari garrantzia kentzen diogu eta kartzela mendekua dela ahazten zaigu. Ondorioz, hura gutxieteko joera handia dago. Sozietateak ez du espetxeetako errealitatearen arrastorik. Sozietateak uste du plasmako telebistak eta igerilekuak dauden espazioa dela kartzela eta jendea kalean baino hobeto dagoela barruan krisi garaiotan. Hori da este-reotipoa.

Protesta artean hasiko dituzte Zubietan errauste planta egiteko lanak, eta aldiz, oharkabe doaz ehun metrora eraiki asmo duten bigarren izugarrikeriaren asmo eta esleipenak. Zubietako makro-kartzelaz ari gara, Norte III izenarekin bataiatu duten proiektuaz. Irudi erraz bezain makabroa duen metafora, EHUko Soziologiako doktore eta Salhaketa-ko kide Cesar Manzanosek adierazi bezala. Badugu hitzak leunduz errealitatea ere leundu egiten dela sinesteko halako premia. “Zentro eredu” deitu diogu per-

tsonak errausteko labe honi, eta bertan pilatu, deslai utzi eta erreko ditugu zaborra balira bezala ehunka lagun, egin berri dituzten beste karteletan gertatzen den antzera.

Martxoaren 31 eta apirilaren 2 artean Añorgako Firestone Lantegi Berreskuratuan egingo den Tatto Circus-Espetxeen aurkako topaketak jarri gaituzte egitasmo zahar-berri honen atezuan. 2013an lanen esleipenak eginak zituen baina PP Espainiar Estatuko gobernura heldu zelarik *stand by* geratu zen proiektuak, hautsak arrotzeko abiadura hartu du. Zubietakoaz nahiz halako eraikuntzak bultzatzen dituzten negozio logikez aritzeko solasaldia antolatu dute aipatu topaketen baitan, apirilaren 1ean, 11:30ean: “Zubietako, edo burtsan kotizatzen diren kartzelak”.

“Kartzela erraldoien” gizatasuna

2006ko otsailaren 23an, kartzela erraldoiak kentzeari buruzko lege besteko proposamen bat onartu zuen Eusko Legebiltzarreko gehiengoak. Proposamenaren laugarren atalak eskari zuzena egiten zion Espetxezaintzako Zuzendaritza Nagusiari: Euskal Autonomia Erkidegoan Zubietakoaren gisako zentroak eraikitzeari utzi eta lurralde historiko bakoitzean Gizarteratze Zentroak za-



baltzeko lanak bizkortzea. 2015eko azaroan, baina, Donostiako alkate Eneko Goiak “desengainua hartu” eta “haserre” agertu zen hedabideen aurrean kartzelaren eraikitzea “beste behin atzeratu” zelako.

Ez Zubietan, ez Gipuzkoan, halako kartzelarik ez da behar inon. Baina gure kontzientzia hebainduek kontrakoa sinetsi nahiko dute, eroso baizaigu gizatasunaren diskurtsoa: “Martuteneko kartzelaren baldintzak txarrak dira eta baldintzok presoek sufritzen dituzte. Hortaz, ez da bidezkoa horrelako instalazio bat izatea eta, ondorioz, ezinbestekoa da –eta, beraz, lehentasunezkoa– kartzela Zubietara eramatea”, esango du Goiak. Eta kartzela zaharkituek agerian dituzten gabeziak emendatu beharrez bestelako galderak errefusatu ditugu.

Eskuzaitzeta mazelan 28 hektareako sailean kokatuko den kartzelak 55.392 metro koadroko azalera izango du; aurrez uste zena baino gehiago, hastapenetako proiektuak aldaketak izan baititu. Proiektu berriak ez du bost urte atzera diseinatutakoak aurreikusitako ez igeri-leku estalirik, ezta plasmako telebistarik ere, hauek “premia-gabeko eta handinahiko elementuak” direla-koan, Jorge Fernández Díaz Barne ministro zenaren hitzen errepikan. “Lu-

xurik” gabeko eraikinak 1.100 lagun jazartzeko gaitasuna izango du, sei modulu eta 508 zigor-gelatan, bi ohatzekoak gehienak, beste 80 osagarrirekin (hauetarik 24 isolamenduan).

Minaren negoziak

Zubietakoa justifikatzeko beharren inguruko ikerketarik ez zegoen 2012an, urte bereko martxoan kartzelaren aurka agertu ziren zenbait eragilek ezagutarazi zuten. Kontrara, orduko datuen irakurketa azalekoak agertzen du kartzela-zigorra bete beharrean diren gipuzkoarren edo lurraldean erroldatuak diren pertsona kopuruaz ezaxola diseinatu proiektua dela. Hau da, kartzela beteko luketen pertsonen gehiengoa ez litzateke herrialdekoa, 2012an Gipuzkoa bizileku zuten presoak 600 inguru baitziren, eta paradoxa makabroan, horietatik gehienak zigorra herrialdetik kanpo betetzen. Bost urte igaroak direla ikerketarik ez dago oraino.

Eraikuntza proiektua fini da, 2015eko uztaillean Euroestudios S.L. enpresari esleitu zioten erredakzio lanak sei hilabeteko epean funditzeko. 2016az gerora Barne Ministerioaren meneko SIEP (*Sociedad de Infraestructuras y Equipamientos Penitenciarios*) eraikuntza lanak esleitzeko Zigor-Erakundeek

agindua noiz emango zain aurkitzen da. Azken kostua zein izango den jakiteko dagoen arren, gaur-gaurkoz kartzela berriak 91,4 milioi euroko kostua izango du. Akaso diru eta zifren dantzarekin, halako batean, Zubietako kartzelaren proiektua zerk hauspotzen duen galdetuko dugu. Galderaren harian, Goiak esango du eraikuntza lanen atzeratzea oso albiste txarra dela eta segidakoa gogorarazi: “Baldin eta Txomin Enea bada hiriak duen apusturik garrantzitsuena etxebizitzak zein etxebizitza babestuak egiteko, kartzela Zubietara eramateak baldintzatzen du gune horren garapenaren bigarren zatia”. Ezer gutxi du ikustekorik kartzela-sistema gizatiarrago batekin edo sistema bera “zuzenbidera egokitzeko” behararekin.

Estu lotu izan du mendebaldeko iruditeria kolektiboak tatuaia, lehenik zigorrarekin oro har, eta zehatzean kartzelarekin aro modernoetan. Ez alferrik, itsas jendeak asmatutako praktika dugu eta jakina da legearen ihes egiten zuela itsasora ez lagun gutxi. Orbainak eta zauriak, gatibu hartu dituen gorputzetan ez eze, kartzelak tatuaia berria egingo du aurki lurraldeko gorputz sozialean, aurrez Norte I izenekoak egin bezala, Arabako eraikinik handiena den horrek. ■

Ikasle mugimendu euskaldun, galiziar eta katalana

HEZKUNTZA PROPIOAREN ALDEKO BORROKAK BATUTA

“LOMCEren xirimiriak berdin-berdin busti ditu nazio zapaldu guztiak”. Hala esan digute Hego Euskal Herriko, Galiziako eta Herrialde Katalanetako ikasle mugimenduek. Hiruengana jo dugu, konta diezaguten egunerokoan nola egiten dioten aurre geldirik baina bizirik dagoen Espainiako hezkuntza legeari.



Ane Eslava Serrano
@eslavaane



Samuel Pasandin.



Iria Figueroa.



Andrea Terron.

“Euskal instituzioetan ez dago LOMCEri aurre egingo dion inor”

Samuel Pasandinek 18 urte ditu, Batxilergoko Bigarren Maila egiten ari da Laudion, eta Ikasle Abertzaleak mugimenduko kidea da. Bere hitzetan, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak hiru urte daramatzate LOMCE aplikatzen, baina bereziki aurten nabaritutako dute Batxilergoan, kanpo-azterketak iragarritako daudelako ikasturte amaierarako. “Balio dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egin nahi dute,

sistemarentzat probetxugarri ez diren horiek baztertzeko asmoz”, dio Pasandinek. Mehatxuari aurre egiteko bidea desobedientzia dela dio: “Errebaliden lehen urtea izanda, desobedientzia lantzeko aukera daukagu, eta orain ixten badizkiegu ateak, agian datozen urteetan datorrenari aurre egiteko bide berriak ireki ahal izango ditugu”.

Arazoa, ordea, ez da kanpo-azterketekin amaitzen, Madrildik inposatutako legeak beste zenbait ondorio eragingo ditu-eta: Lanbide Heziketaren eta unibertsitatearen arteko hautua goizegi egitea, Filosofia bezalako irakasgaiak desagertzea, Erlijioa notari balioa ematea, Euskara espezialitate

izatera pasatzea... Horregatik, tentuz ibiltzeko beharra azpimarratu digu, sarri kanpo-azterketak modu isolatuan planteatzen direlakoan. Akats horretan ez erortzeko bidea “hezkuntzaren problematika integralki hartzea” dela iritzi dio, “sistema osoa errotik aldatzeko”.

Etorkizuna ez du argi ikusten Samuel Pasandinek: “LOMCE aplikatzen ari dira eta instituzioetan ez dago inolako subjekturik hori gelditzeko asmoz, legeak bere alde du dena”. Horren aurrean, ikasle mugimenduak borrokan jarraituko duela ziur da, ikasleen beharrak asebeteko dituen hezkuntza sistema lortzeko: “Askatzailea, bertakoa eta eduki propioekin”.

“Galegoaren normalizaziorako bidea oztopatzen du”

Iria Figueroa 20 urte ditu, Kazaritza ikasten ari da eta Erguer Estudiantes de Galiza sindikatuko kidea da. Argi du lege hau Galizia nazio moduan zapaltzeko tresna dela: “Geure nazioaren eduki propioak kentzen ditu, uniformizazioa bilatuz, ezinezkoa izan dadin herri honen errealitatea eta historia transmititzea”. Bereziki kezkatuta azaldu da hizkuntzak pairatu ditzakeen ondorioekin: “Galegoaren normalizaziorako bidea oztopatzen du”. 2009. urtera arte, indarrean zegoen hizkuntza normalizaziorako legeak galegoari gaz-

telerari baino ordu gehiago eskaintzen zizkion. Alverno Nuñez Feijóok Xuntaren presidentzia hartu zuenean, ordea, galegoaren orduak murriztu zituen, ingeleraren mesedetan. Eta LOMCE “are bortitzagoa da”, indarrean dagoen dekretu minimoa ere urratzen baitu. Galegoaren normalizazioa lortzeko, gizartean duen presentzia handitzea eta horretarako hezkuntzaren bitartez bultzatzea funtsezkotzat du. “Baina egiten duten gauza bakarra zein da? Galegoa erasotzea”.

Dioenez, Galiziako Xuntak beraiekin ez du ez kolaboraziorik, ez komunikaziorik. Ikasle mugimenduak determinazioa eskatu dio Hezkuntza Sailari, baina erantzuna “erabateko isiltasuna” izan da. Erguer Estudiantesek otsailean grebara deitu zituen ikasleak, eta Hezkun-

tza Sailak greba ez bultzatzeko deia egin zuen. “Jarrera larria”, Figueroaren ustez. “Grebarako arrazoirik ez zegoela esan zuten, negoziazioa Estatuan ematen ari zelako. Xuntak bizkarra eman dio hezkuntza komunitateari”.

Galiziako ikasleek duela urtebete sortu zuten Erguer sindikatua, pedagogiaren bidez LOMCE deseraikitzeke xedez. Sindikatuaren lehenengo urratsak gogorak izan direla kontatu du Iria Figueroak, baina buruturiko ekimenetan arrakasta lortu dutela, eta antolatutiko erreferendumean adibidez, legearen aurkakotasuna garbia izan zela. Eskakizuna ere argi dute: “Bertako lege bat, gure benetako arazoak jorratuko dituen, hezkuntza komunitatearekin elkarlanean egindakoa eta hizkuntzaren normalizazioarekin konprometitua”.

“Gobernuarekin negoziazio mahaia osatzea da aurtengo apustu handia”

Andrea Terron 21 urte ditu, Zientzia Politikoak eta Zuzenbidea ikasten du Pompeu Fabran, eta SEPC Sindicat d’Estudiants dels Països Catalans kidea da. LOMCEk Herrialde Katalanetan eragindako kalteei buruz mintzatzean, pribatizazioan jarri du fokua: “Legea aplikatzen hasi zirenetik ikastetxe kontzertatuen kopurua asko handitu da eta zentro hauek askotan Opus Dei bezalako instituzioetara lotuta daude”. Instituzio horien

presioaren eraginez, ikastetxeen demokrazia ezabatu egin dela dio. “Lehen eskola kontseilu parekideak zeuden, eta orain berriz, enpresa kontseiluak”. Horrek “segregazioa, ikasgai kritikoen murrizketa eta hizkuntzaren atzerakada” ekarri du. Katalana orain hautazkoa da eta gaztelera aldiz, derrigorrezkoa. Gaur egun gaztelania hutseko bi ikastetxe baino ez dauden arren, LOMCEren ugaritu egin daitezke.

Generalitatea legearen aplikazioa luzatzen saiatu dela dio Terron, baina azkenean ezarri duela. “Ondorio minimoak izango dituela diote, baina dagoeneko nabaritzen dira”.

SEPC ikasle sindikatuaren bitartez egiten ari diren lanketarekin pozik azaldu da: “Inoiz baino indar gehiago dugu orain”. Hilabete bakarrean bi ikasle gre-

ba egin dituzte eta jarraipena erabatekoa izan da. Eskariak, honakoak: eskolen barne demokrazia berreskuratzea, curriculum bertan erabakitzea, katalan hutsean ikasi ahal izatea eta eskola baztertzaileri diru-laguntzak kentzea. Aurrerantzean etorriko dena ez du argi. Kallean erakutsi duten indarraren emaitzen zain, Gobernuarekin negoziazio mahaia osatzeko asmoa dute: “Ikasturte honetako apustu handia da”. Lortzekotan, Kataluniako autodeterminazio prozesuarekin lortuko dutela azaldu du, eskaerak ildo beretik doazelako eta LOMCEren atzean “interes politikoa” dagoelako: “Espainiako Gobernuak bere interesen arabera politikak inposatzeko darabilen arma da Kataluniako hezkuntza, eta hori saihestu behar dugu”. ■



BLOG IZARREN BILA

EUSKAL BLOGARIEN II. TOPAKETA

MARTXOAK 30, OSTEGUNA
Bilboko Euskararen Etxean (15:30-20:00)
Hitzaldiak
Blogintza inkestaz (Azkue Fundazioa)
Mahai-inguruak
 Garapena, posizionamendua eta baliabideak
 Sustapena, publizitatea eta monetizazioa
Sari-banaketa ekitaldia

Antolatzailea: **azkue** fundazioa

Laguntzailea: **ARGIA**

SARRERA DOAKOA
Eman izena! www.blogetan.eus/jardunaldia

Armentia-2 proiektua

Frackinga albo batera utzita ere, gasa jomugan du Jaurlaritzak

lazko urrian jakin zen Eusko Jaurlaritza, SHESA sozietatearen bitartez, baimena tramitatzen ari dela gas putzu bat irekitzeko Subilla Gasteizen, hainbat urtez fracking bidez zulaketa egin nahi izan zen lekuan bertan. Haustura hidraulikoa legeak baztertu duen honetan, eztabaida beste esparru batzuetara lerratu da dagoeneko. Batez ere galdera honetara: onargarria da gasa bilatzeko diru publikoa inbertitzea?



Unai Brea
@unaibrea

2015eko ekainean EAEn frackinga erabiltzea *de facto* eragozten duen legea onartu zuen Eusko Legebiltzarra. Erabaki horrek Jaurlaritzaren asmoak aldatzera behartu zuen, baina ez helburu nagusia. Abstentzioaren bidez legea onartzeari atea zabaldu zion EAJk behin eta berriz esan du haustura hidraulikoa segurtasun bermerik gabeko teknika dela gaur-gaurkoz, baina garrantzitsua dela modu batean edo bestean EAEko lurpean zenbat hidrokarburu dagoen jakitea.

Tesi horri eutsi dio Lakuak ere, Arantzeta Tapiak zuzentzen duen Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun sailaren bitartez nagusiki. Hala, 2016ko urrian, Jaurlaritzaren menpeko Euskadiko Hidrokarburuak (SHESA) sozietate publikoak proiektua aurkeztu zuen Armentia-2 izeneko gas putzua irekitzeko, teknika konbentzionalak erabiliz. Proiektuaren kokapena Armentia-1 putzutik oso metro gutxira dago, lehenengo fracking bidezko zulaketa egitea aurreikusitako lekuan, Subilla Gasteizen. Honezkerok diru kopuru bat dago lan horretarako eslehituta, egunotan ezbaian diren 2017ko aurrekontuetan: 4,3 milioi euro. Orotara hamazortzi milioi euroko kostua izan dezake egitasmoak.

Lehengora buelta, hogei urte geroago

SHESAk 1997an egin zuen Armentia-1 putzua, baina hura porrota izan zen; eskura zeuden teknikekin ezin zen ia gasik atera, hobia iragazkortasun txikiak delako. Handik hamarkada batera gutxi gorabehera, Eusko Jaurlaritzak asmoa berritu zuen, ordurako lurpeko gas guztia ateratzea ahalbidetuko zuen teknikan itxaropena jarrita: frackinga. Geroko historia ezaguna da. Patxi Lopezek maniobra batek mundu guztia frackingaz hitz egiten hastea eragin eta bide batez haren aurkako borroka piztu zuen; azkenik, hura erabiltzea eragozten duen legea onartu zen.

“Frackinga beharrezkoa bazen teknika konbentzionalak ez zutelako balio, nola liteke orain berriro teknika konbentzionalak oinarritutako proiektua aurkezte?” galdetzen dute Armentia-2 proiektuaren aurka azaldu direnek. SHESA, edo bestela esanda, Jaurlaritza, Thrive Energy enpresari 53.600 euroren truke eskatutako txosten batean oinarritzen da egitasmoaren bideragarritasuna defendatzeko, nahiz eta erabateko ziurtasuna agertu ez. “Uste dugu errentagarria izan daitekeela, baina zundatzen hasi arte ezin da ezer aurre-

ratu”, esan zuen Luis Muñoz SHESAko zuzendari teknikoak joan den martxoaren 6an Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldian. Momentuz, Espainiako Ingurumen Ministerioaren baimenaren zain daude.

Energi eredu ezbaian

Fracking Ez kolektiboa izan zen udazkenean Armentia-2 proiektuaren aurka azaldu zen lehena. “Berritasun bakarra ‘fracking’ hitza desagertzea da”, nabarmendu zuten. Hori horrela, oposizio lana beste esku batzuetan uztea deliberratu zuten. Araban batzar irekia antolatu eta handik sortu zen Berritzu taldea.

Subillako putzua geldiaraztea du helburu Berritzuk, baina ez hori bakarrik: energi ereduaz eztabaidatu behar dela uste dute, “gizarteari bide okerretik goazela ohartarazteko”, taldeko kide Estitxu Villamorren hitzetan. “Gasa trantsiziozko energia garbia dela sinestarazi nahi digute, baina indarra azpiegitura horietan jartzen bada beste energia eredu batzuetan inbertitzea oztopatzen da, berriztagarrietan adibidez”.

Erregai fosiletan diru publikoa inbertitzea zentzurik gabeko atzerapausoa da, dio Berritzuk. Hori da, halaber, Armentia-2 proiektuaren aurka azaldu di-



ARABAKO ALEA

Goian, Berriztu taldeak urtarilaren 21ean Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan egindako elkarretaratzea. Apirilaren 3rako beste baterako deia egin dute, Eusko Legebiltzarraren aurrean, barruan aurrekontuei zuzenketak bozkatzeko ari diren bitartean. Eskuineko argazkian, Armentia-1 putzu zaharra, Subillan. Metro gutxira ireki nahi dute Armentia-2.

» Erregai fosiletan diru publikoa inbertitzea zentzurik gabeko atzerapausoa da, Armentia-2 gas putzuaren proiektuaren aurka daudenen esanetan

ren Legebiltzarreko talde bik, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek, darabilten argudio nagusia. 2017ko EAEko aurrekontuetan putzua egiteko aurreikusi diren 4,3 milioi euroak kentzeko eskatu dute biek, apirilaren 3an eta 4an bozkatzeko diren zuzenketen bidez. SHESAren nahien aurka agertu den beste alderdia PP da, baina lerro hauek idazteko unean ez da segurua zer jarrera zehatz hartuko duten popularrek, Madrildik datorren erabakiaren zain.



Hidrokarburoen eztabaida zabalik

“Ingurumen inpaktua antzekoa izango da frackingarekin edo fracking gabe”, dio Estitxu Villamorrek; “nahiz eta teknikak ustez konbentzionalak izan hobia lehenengo bera da, ez-konbentzionala”. Horrek esan nahi du zulaketa bakarretik ateratekeen gas kopurua oso txikia dela, eta beraz operazioa ezin dela errentagarria izan putzu asko egin gabe. Lurralde okupazio handiegia eragin lezake proiektua garatzeak, Berriztuk salatzen duenez.

Thrive enpresak egindako txostenaren arabera, frackinga litzateke Subillan gasa erauzteko biderik egokiena, baina hura

erabiltzeko aukerarik ezean teknika konbentzional modernoek balio dezakete. Besteak beste, Balmaseda izeneko formazio geologikoa oso heterogeneotzat jotzen delako; baditu, beraz, bitarteko konbentzionalekin esploratzeko moduko aldeak. Argudio horrek ez ditu aurkariak konbentzitu ordea, ez proiektuaren errentagarritasunaz ez arrisku faltaz.

Badirudi, edozein kasutan, eztabaidagai nagusia ez dela egitasmoaren balizko ingurumen inpaktua izango –horrek garrantzia izango badu ere–, hidrokarburoak bilatzeko inbertsio publikoen zilegitasuna baizik. ■

EUSKAL OASIA SUTAN

Txosten gordina argitaratu du HerriUni-ko kide Nekane Jurado ekonomialariak. Kriaren lehen urte gisa hartzen den 2008 urtea egungo egoerarekin konparatu du, Hego Euskal Herrian ere aberats eta txiroen arteko arrakala zabaltzen ari dela agerian utziz. Bertan 533.222 pertsona pobrezia mugatik behera bizi dela jakiteak argi uzten du "Euskal Oasirik" ez dela, aberasten jarraitzen duten gutxi batzuentzat ez bada.

**Lander Arbelaitz**

@larbelaitz



“Esperantzaren printzipioa soilik gauzatuko da, herritarren gehiengoa konurtatzen denean bere bizi baldintzak ez direla direnak inongo lege naturalengatik edo helburu zerutiarrengatik, pobrezia eta inpotentzia sortuz, handi-mandi gutxi batzuen aberastasun eta botere-gose ase ezinagatik baizik”.

Vicente Romanoren aipu horrekin hasten da *Atzeraldi handiko hamarkadaren osteko egoera ekonomiko eta soziala* txostena. HerriUniko kide Nekane Juradok egin du, beste eragile sozial eta politikoko batzuekin: Eusko Ekintza, Herritar Batasuna, Euskal Herriko Komunistak, Askatasunaren Bidea eta Libertate Nafarra. 100 orriko txosten zorrotzak ba-

tean eta bestean argitaratu diren datu eta estatistikak ditu oinarri, egoeraren argazki beltza islatuz.

Lanaren tesia da 2008 eta 2017 urte bitarteko Hego Euskal Herriko aurrekontuek gizarte desorekan sakondu dutela urtez urte. Nekane Juradok oso garbi du herritarren parte handi bat pobretzen ari den bitartean, gutxi batzuk aberasten ari direla. Ez da Hego Euskal Herriko berezko kontua, Europar Batasunean ere kapital metaketa biderkatu egin baitute herrialdez herrialde gutxi batzuek. “Lisboako Itunarekin hasi zen Europar Batasuna 2000ko martxoan ongizate estatuak desmontatzen”, dio. Egun, prozesu beraren bigarren fase bortitzago bat bizitzen ari garela defendatzen du Juradok. Estatuak arlo sozialean egiten ari ziren murrizketak, krisia heltzean bizkortu egin zituzten prozesuak, *shock* egoeran zeuden gizartearen erantzun azkarren faltan.

“Gizarte prekarioa eraiki dute, lege-kolpeka”, dio egileak txostenean. Prekarietatea bultzatzen duten zazpi faktore zerrendatu ditu: lan erreformak, zerga politika gero eta erregresiboagoak, gastu publikoa espekulatzaileria eta iruzurtien artean banatzea, ondasun publikoen pribatizazioaren eta liberalizazioaren aldeko araudiak idaztea, zorpetze maila handitzea, aberastasunaren pilaketa versus txirotasunaren handitzea, eta azkenik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako krisi demografikoa.

Desorekan sakontzen

“Kapitalismoa zerbait bada, hori polarizazioa da, aberastasunaren kontzentrazioa”, dio begirada zorrotzez Juradok. Oxfamek 2016 amaieran salatu zuenez, munduko 62 pertsona aberatsenek, 3.500 milioi lagun txirotaren adina aberastasun daukate pilatuta, eta munduaren erdia planetako aberastasunaren %2arekin bakarrik bizi da. Europar Batasuneko informeei jasotzen dute aberastasunaren kontzentrazioa bereziki nabarmena dela ondorengo herrialdeetan: Polonia, Estonia, Grezia eta Espainian. Unibertsitate munduan egin

diren ikerketen arabera, Euskal Herriko kapital kontzentrazioa altuagoa da Espainiako Estatuak eta Europar Batasuneko batzuek baino. Espainiako datuak baditugu: Espainiako Estatuan, %1 aberatsenak %80ak adina ondasun dauka. Hego Euskal Herrian kontua larriagoa bada, zein ote dira kopuruak? EAEko eta Nafarroako kontu publikoak ez direla batere gardenak salatu du Juradok, eta datu zehatz hau falta dela dio.

Nor da aberasten ari Euskal Herrian? “Finantza sektoreko eta elektrizitate sektoreko familiak, akzionista handi-handiak”. BBVA eta Iberdrolako administrazio kontseiluetako kideak adibidez. Altzailuraren “jauntxo” handiak gai hau aipatzean isilean pasatzen direla uste duenez, aberasten ari direnen multzoan sartu ditu. “Altzairuari lotutako enpresa publikoak EAJren oniritziarekin pribatizatu zituztenean, hauek ondoren nazioarteko konpainia handiei eta *holding*ei saldu zituztenez. Salerosketak honetan, batzuek fortuna izugarriak egin zituzten, eta ikusi egin behar litzaiteke ea ustelkeria norainokoa izan den hemen”. Euskal herritarrek lurraldeko aberats handiak oso gutxi ezagutzen dituztela uste du ekonomialariak.

Pobrezia eta prekarietatea gora

Txanponaren beste aldean kokatzen dira, Eurostaten 2015 amaierako datuen arabera, pobrezian eta bazterkeria arriskuan dauden Europar Batasuneko 122,3 milioi pertsonak. Herritarren %24, lauti bat; hamar urte lehenago multzo honetan herritarren %15ean zegoenean. Espainiako Estatuan 2007 eta 2015 urteen artean, txiro kopurua %26,6 igo da, hau da, 2,8 milioi txiro berri daude krisia hasi zenetik. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan herritarren %19,3 eta Nafarroako %17,1 pobrezia mugatik behera daudela jaso du Espainiako Pobrezia Egoeraren 6. informea. EAEn 423.002 pertsona eta Nafarroan 110.220. Guztira Hego Euskal Herrian bostetik bat pobrezia mugatik behera: 533.222 pertsona.

Pobrezia mailaren datuak, gainera, “tranpa” daukala gehitu du Juradok. Nork eta non jartzen du pobrezia mailaren marra gorria? “Datu hori erlatiboa da eta azken urteetan jaisten joan da, jende gutxiago egon dadin izen horren atzean”. Adibidea jartzearen, Espainiako Estatuan 2009an pobretzat hartzen ziren kontsumo unitate gisa hilean



Masiboki zorpetu dira familiak eta enpresak Hego Euskal Herrian. Juradok argi du zorrak edozein pertsona lotzen duela prekarietatera, lan baldintza txarrak izan arren edozein lan onartzeraz.

ARGAZKI PRESS / GORKA RUBIO

739,7 eurotik beherako diru sarrerak zituzten etxeetan bizi ziren pertsonak. 2015ean pobrezia maila 667 eurora jaitsi dute, eta beraz, hilean 667 eta 739 euro bitarteko sarrerak dituzten pertsona guztiek “txiro” izateari utzi diote txosten ofizialetan, beren bizimoduetan inolako hobekuntzarik izan gabe.

“Langile txiro” deritzanen datua ere alarmak piztekoa iruditzen zaio Juradori. EAEn 18 urtetik gorako herritarren %13,57k ez du inongo errentarik jasotzen, edo urtean 12.000 eurotik behera jasotzen du 18 urtetik gorakoen %44k, Eustatek emandako datuen arabera. “Urtean 12.000 eurotik behera gure gizartean ezin da etxebizitza bat eskuratu, ezin da jan, ezin da jantzi, ezin da enargaririk eskuratu”.

Datu ofizialen arabera, Hego Euskal Herrian 255.000 pertsonak energia pobrezia pairatzen du. Energia pobrezia kontzeptua modan jarri dela uste du Juradok, baina hori pobrezia ekonomikoaren adierazle bat dela. “Hitz egin genezake energiaz gain, nutrizio-pobreziaz, zaintza pobreziaz, kultur pobreziaz eta beste. Energia pobrezia pairatzen duen jendeak, ez du hori bakarrik pairatzen, baliabideak izango balitu argindarra erabiliko bailuke. Badirudi diagnostiko globala ez dugula ikusi nahi, sakonean da goena da pobreak direla ekonomikoki”.

Legia eskuan, prekarietatea eraiki

Segidan datorren datu zopa handia irakurleak lehen kolpean asimilatzea zaila izan daitekeen arren, ongi dokumentatutako datuok osatzen duten erradiografiak talka egiten du hainbat eragile zabaltzen ari diren ekonomiaren berreskuratzearen ideiarekin.

- EAEko industria 1975ean BPGren %48,8 sortzetik erdira jaitsi da 2015ean, %24ra.
- Langile industrialak 355.400 izatetik 181.041 izatera jaitsi dira.
- 2008tik 142.000 lanpostu deuseztatu dira.
- EAEn egindako kontratuen %93,5 aldi baterakoak dira, batez beste, bi hilabete beherakoak.
- Erregistratutako 176.217 langabeterekin itxi du 2016a Hego Euskal Herriak, erregistratu gabeak gehitu behar zaizkio horri.
- 2009an langabeen %68,7k jasotzen zuen prestazioa egun %37,5ek.
- Langabezia prestazioa jasotzen duen

pertsona bakoitzarekin egiten den batez besteko gastua %19 jaitsi da 2009tik 2016ra.

- Egun 44 urtetik beherako gazteen %39,4 gurasoen etxean bizi da; 2008an %34,4 ziren.
- 2009 eta 2014 urte bitartean arrazoi ekonomikoengatik 14.300 gaztek migratu behar izan du atzerriara.
- Segurtasun eza, dependentzia, auto-konfiantza falta, estresa, sozializatzeko arazoak, depresioak edo gaixotasun psikikoak geroz eta arazo ohikoagoak dira.
- 2009-2014 bitartean 1.328 pertsonak egin dute beren buruaz beste: 296 Nafarroan, 1.032 EAEn. Astean 4 suizidio.

BPGa, datu engainagarria

“2016a Euskadin hirugarren urtez jarraian ekonomia eta lanpostuak berreskuratu dira, eta 2017ra luzatuko da erreuperazioa”, dio Confebasken iazko balantzeak. Barne Produktu Gordina gisako datuei erreparatuta, hori uler liteke. Hego Euskal Herriko Barne Produktu Gordina 2016an %2,9 igo da Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuen arabera. Juradok datuok aztertzeke orduan, Iberdrola eta BBVA gisako enpresen kapital guztia, “herritarrok usaindu ere egiten ez dugun aberastasuna”, hor kontabilizatzen dela nabarmendu du.

“Jo dezagun BPGa guztion irinarekin egiten den tarta dela, nahiz eta hemengo irinari gehitzen zaion Hego Amerikatik bezala, beste lurraldeetatik batzuek lapurtzen dutena. Behin tarta eginda, herritar kopuruaren artean zatitzen da, eta gainera oso gutxi garenez, zenbaki altua ateratzen da. Pertsona bakoitzari 33.000 euro dagozkigula ateratzen da EAEn, etxean bi bagara 66.000, eta haur bat izanik 99.000 euro ditugula. Hori ez dauka ia inork. Batez besteekin jokatzenean, Euskal Herriko per capita errentarekin eta abar, ezberdintasun guztia ezkututzen ari dira. Ikaragarria da”.

BPGaren igoera hiru faktore nagusien eraginez gertatu dela jaso dute txostenean: faktore monetarioa, turismoa eta esportazioak. Eragile nagusia monetarioa da. “Atzean ez du ezer, fiktizioa da”. Orain bi urte inguru, Europako Banku Zentralk “zabalkunde monetarioa” deitu ziona abiatu zuen gogoratzen du, hau da, krisiaren sakontasuna ikusita, diru gehiago

produzitu eta bankari interes negatiboekin eman ziotela: 1,14 bilioi euro. “Bankak bestela inola koloka ezin zezaketen herrialdeen zor publikoa eros zezaten, arrisku saria jaisteko eta inflazioa igozteko. Oso operazio politiko-ekonomiko arriskutsua da, lehendik AEBak eta Japoniak egin zuten. Makinari dirua ematean Europako herrialdeen BPG %1,8 eta %2 artean igo zen zuzenean”. Horrela ezin dela luze jarraitu uste du Juradok.

“Badakigu BPGaren igoeraren %2 moneta masa zabaldu delako gertatu dela. Beste %1, turismoagatik igo da, baina oso koiunturala da”. Mediterraneo itsasoaren inguruko hainbat herrialdetan ezegonkortasun politiko handia dago, turisten aurkako atentatuak eta beste. Eta horregatik guztiagatik ere badoa gurea gora”. Txostenean jaso dute Hego Euskal Herrian sektore horretako langileen prekarietateak bermatzen dituela prezio baxuak, eta eragina duela turismoarekin lotutako enpresen igoeran. Juradok ez du turismo eredu hori babesten.

Esportazioen igoeraz dio BPGan ez duela hainbesteko igoerarik eragin, diskurtso ofizialak kontrakoa esaten badu ere. Hauek gora doaz produktuaren prezioa jaitsi egin delako, lan eskua merketzen ari delako. Pobrezia eraikitzen ari dira”, dio borobil.

Zor publikoaren burbuila arriskutsua

Ekonomia errealki baino indar handiagoa du finantza ekonomiak, txostenean defendatzen dutenez. “Batetik, langileek soldata baxuak kreditu bidez konpentsatzeko, eta bestetik, kapital handiek autoerreproduzitzeko eta mugarik gabe hazteko bidea aurkitu dutelako. 1970eko hamarkadaz geroztik, herritarrei aberastasuna kentzeko kapitalaren palanka berria bilakatu da kreditu sistema”.

EAEko zor publikoa krisia hasi zenetik 16 aldiz biderkatu da. EAEk 2007an 642 milioi euroko zor publikoa zuen, eta 2017an 10.450 milioi eurokoa, Espainiako Bankuak egindako informe baten arabera. 2017ko aurrekontuen %10 zorra eta interesak ordaintzeko dela jaso du.

Zor publikoak herritar xeheari zuzenean eragiten diola erakusteko, familia baten kasua jartzen du adibide gisa ekonomialariak. Etxearentzat hipoteka eskatu du, beste bat autoarentzat eta beste bat beste zerbitutarako. “Bankuekin zorrak ditut, baina ez al dit eragiten? Bizitza maila jakin batean bizi naiz. Hori



Erakundeak gastu sozialetan etengabeko murrizketak egiten ari direla eta Europar Batasuna "ongizate estatuak" desmantelatzen ari dela argi du Juradok.

ARGAZKI PRESS / JON HERNÁEZ

ordea, ez da erreala eta lehertu egingo da goiz edo berandu. Batetik, kapitala itzuli egin behar dudalako noizbait, eta horrez gain, interesak ordaintzen ari naizelako urtez urte. Errenta, elektrizitatea edo janaria ordaintzeko orduan eragiten ari da beraz. Diru sarrerren jaitziera eta aurrera begira diru hazkundera ekonomiko baten perspektiba falta gehituz egoerari, geroz eta zorpetuago zaude, eta hori da gertatu dena. Euskal Herria bide horretan sartu da”.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zorraren %25 AHTren lanak ordaintzeko erabili da: Eusko Jaurlaritzak unilateralki 2.570 milioi euro aurreratu ditu. Egun ordaintzeko dagoen zorraren %30 AHTren aurre ordaintzeko egiteko izan dela dio. “Aurten aurreikusitako dituzten 390 milioi euro horiek zorrarekin ordaindu dituzte jada, alegia, egun zorra eta interesak %30 txikiagoa izan litezke”.

Zor publikoaz gain, zorpetze pribatuak herritarrak “prekarietatean harapatuta geratzea” esan nahi du bere ustez. “Ez soilik lan arloan, prekarietate izugarria bizi dugu gure bizitzetan. Maileguak masiboki eman zituzten, jendearekin zor txikiak ditu gehiengoak, eta azkenean eskaintzen dizuten lana hartu besterik

» EAEn egindako kontratuen %93,5 aldi baterakoak dira, batez beste, bi hilabetetik beherakoak

ez duzu, miseria guztiarekin. Zorra da jendea prekarietatera betirako kateatzeko modua”. Gazteak geroz eta zorpetuago daudela ere nabarmendu du Juradok.

Aurrez emandako datuok izebergaren punta direla diote, Ogasunak kontrolatzen dituen errentetan oinarritzen baitira. Kanpo geratu den 13.560 milioi euroko iruzur fiskala familia eta enpresa ingurune murriz batean kokatzen da nagusiki. Datua Ogasun Ministerio-ko Teknikarien sindikatuak eman zuen Arabako Batzar Nagusietan 2012ko martxoan. EAEko sistema fiskalean gertatzen ari den “iruzur fiskal altuaz” mintzatu ziren. “Hori asko ala gutxi da? Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua 11.000 milioi dira. Iruzurra 13.560 milioi. Hori kentzearekin bakarrik, aurrekontua bikoiztu liteke”, dio Nekane Juradok.

Nork jartzen du denon dirua?

Etekin handiak izaten ari diren euskal enpresa handiek Ogasunari egiten dioten ekarpena oso baxua dela uste du Juradok. “Euskadiko Zerga Koordinaziorako Bulegoak emandako datuen arabera, EAEn biltzen den diruaren %92,2 lan errendimendutik dator, %6,1 aktibitate ekonomikoaren errendimendutik eta azken %1,7a gainontzeko elementuek osatzen dute. Honek esan nahi du, hemen biltzen den 100 eurotik 6,2 bakarrik ari direla jartzen enpresak, eta gainontzeko guztia herritarrok jartzen dugula”. Krisiak enpresei iruzur fiskala areagotzeko balio izan diela argi du, diru ekarpena erdira jaitsi baitute datuon arabera. “Diru publikotik azpiegiturak eta diru-laguntzak exijitzen dituzten horiek ematen dutena baino gehiago jasotzen dute, eta politikariek esaten digute ez presionatzeko enpresa handiak, krisian gaudela eta bizirik mantentzea nahikoa dela; kontua denean aberastasuna igotzen doala eta beren ekarpena jaisten”, dio haserre.

Kupoaren bidez EAE eta Nafarroako herritarrak Espainiako Gobernuari geroz eta gehiago ordaintzen ari direla jaso dute txostenean. Bost urtetik behin berritzen den kupoaren legea 2011n iraungi zen,



eta ordutik prorrogatuta dago, ez baitira ados jarri Jaurilaritza eta Espainiako Gobernua kopuruetan. "Hego Euskal Herriko administrazioek beren esku ez dituzten eskumenengatik Madrili ordaintzen zaion dirua da kupoa: EAEk %6,24, %1,6 Nafarroak, orain urte batzuk lurralde hauen ekonomiak estatu mailan zuten pisuaren arabera finkatua. "Madrilek guk ez ditugun eskumenetan xahutzen duena xahutzen duela, guk ehuneko hori ordaintzen dugu". Madril alor horietan gastua biderkatzen ari dela dio, gastuak igoz zor publikoan, langabezia, gizarte segurantzian, NATOren edo Europar Batasunaren gastuan, Monarkian, armadan eta beste hainbat alorretan. Hego Euskal Herriko administrazioak kopuru izugarriak ordaintzen ari direla azpimarratu nahi du, noiz eta presio fiskala jaistearen ondorioz biltzen den diru kopurua jaisten ari denean.

Euskal Herriko udalak erabat zorpetuta daudela jaso dute txostenean. Aldundiek lehenik eta behin Espainiarenetik kupoa ordaindu behar baitute, ondoren Eusko Jaurilaritzari beste ehuneko finko bat eman, eta ondoren geratzen den dirua herrientzat eta aldundientzat dela dio. "Ura lepoan dutenak udaletxeak dira. Arrisku guztia gurea da, gure diru sarreak kontutan hartu gabe Madrili ordaintzen ari garela gastatzen duen oro. Eta luzatzen diren krisi garaietan, sistema ekonomikoaren eraldaketa honetan, euskal sistema publikoaren kiebra finantzarioa ekar dezake. Eta hau EAJk isilik du, bere kudeaketa eredu delako".

Egoera ezin dela ekonomia politikoa aztertu gabe ulertu uste du, Grezia adi-

» Krisiak enpresei iruzur fiskala areagotzeko balio izan diela argi du Juradok

bide gisa jarritz, eurotik ez ateratzea-rraren zigorra onartu behar izan baitzuen, nahiz eta botere handia pilotuta izan ezkerak. Kritika faltan botatzen du. "Aurrekontuak alderdi baten plasmazio politikoa dira. Alderdi baten programa politikoa fondo publikoak behar ditu, finantzazioa, eta hori da aurrekontua. Beste dena diskurtsoa da". Egun, diskurtsoetan aldeak egon daitezkeela aitortu arren, hauxe dio: "Praktikan eta sakoneko ideologian, ezberdintasunak minimoak dira ezkerre deitzen zaion horren eta eskuinaren artean. Sozialdemokraziari gertatzen ari zaiona da". Ezker Abertzalearen azken urteetako aldaketarekin oso kritikoa dela dio. "EH Bildu sozialdemokrazian erori da. Egun dena joko instituzionala da, noiz eta politika ekonomiatik gidatzen ari direnean. Iaz ez zen ezta kritika sakonik ere egon aurrekontuekiko", dio.

"EAEkoa bezalako gizarte zaharkitu batean, zerbitzuen sektorea eskaintzen da, turismoa indartzen da, Guggenheim izenean promozioa egin, AHT eraikitzen dirutza xahutzen jarraitzen da, industria guztia suntsitzen ari dira eta AEBetako paradisu fiskaletan dirutza izugarria daukate hemengo enpresa askok. Horrela ez dago irteerarik".

2014az geroztik Espainiako IBEX35 osatzen duten enpresa guztiek dute

presentzia paradisu fiskaletan. 2012an 555 enpresa zituzten lurralde horietan, 2013an 815, eta 2014an 891. Tartean dira "euskal enpresa handiak", Iberdrola, BBVA, Gamesa eta Euskal Herriko kapitala duten beste batzuk. BBVAk adibidez, 52 elkarte zituen 2014an paradisu fiskaletan. "Isiltasun informatiboak lagunduta, nork babesten du euskal multinazionalik handienaren inpunitatea?".

Lehen 100 ordaintzen genuen tokian, orain 87 ordaintzen dugu presio fiskala jaitsi egin dutelako. BPGren arabera, ordea, aberastasuna 5 puntu igo da. Zergen parte jaitsi egin da. Baina zer jaitsi da? BEZA %16tik %21era igo digute, beraz, kontsumo zerga ez da jaitsi. IRPFa ere geroz eta diru gehiago biltzen ari da. Beraz, erdia baino gehiago jaitsi dena enpresen zerga da. Honenbestez, esan dezakegu enpresak Euskal Herrian 100etik 7 baino gutxiago ari direla ordaintzen, baina BPGaren erdia baino gehiago beren kontu korrontetan daukatela, langileek sortzen duten aberastasuna. Tartaren erdia baino gehiago jaten dute 100etik 7 jarri dutenek. Zer arraio ari da gertatzen?", dio.

"Krisia" deitzen dioten hamarkada honetan goi mailan hartutako erabakiak eragin zuzena izaten ari dira herritarren bizi baldintzengan. Egun zabaldua dauden hainbat uste ustelen aurrean datuak eskaintzeaz gain, Nekane Juradoren txostena baliagarri izan daiteke etorkizunean, ulertzeko aurretik ditugun urte hauetan gizarteak har dezakeen norabidea. Alde batera, edo bestera. ■

ALASKA ZAZPI MILIOIREN TRUKE



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Washington, 1867ko martxoaren 30a. Gaua negoziaketan eman ondoren, goizeko 4:00etan, Errusiak Alaska saldu zien AEBei 7,2 milioi dolarren truke. Eremu zabal izoztuak 1,5 milioi hektarea ditu eta, horrenbestez, 4,74 dolar ordaindu zuten kilometro koadro bakoitzeko. Une hartan 2.500 kolono errusiar bizi ziren han, jatorrizko 10.000 biztanle errusiar jurisdikziopean zeuden eta, horiez gain, beste 50.000 aleutiar, inuit, inupiaq, yupik... bizi zirela kalkulatzeko. Salerosketa Andrew Johnson presidenteak sinatu zuen, eta senatuak berretsi. Transferentzia zeremonia urte bereko urriaren 18an egin zuten eta 7,2 milioiko txekia 1868ko abuztuaren 1eko datarekin jaulki zuten.

Lurraldea saltzeko ahaleginak, ordea, lehenago hasi ziren, 1850eko hamarkadan. Errusiar Inperioak zailtasun ekonomikoak zituen, Alaskako lurraldea militarki defendatzea ez zen erraza eta britainiarrek erraz hartuko zuten beldur ziren. Alaska merke salduta ere, zerbait poltsikoratuko zuten. Bestela, kolonia ezeren truke galtzeko arriskua handia zen. Gainera, ordurako, Alaskako igaraba populazioa ustiatuta eta ia agortuta zeukaten.

Alexander II.a tsarrak Alaska britainiarrei eskaini zien lehenik. Ziurrenik, haren asmoa britainiarren eta estatubatuarren arteko liskarrak areagotzea zen eta, hala,



Errusiak duela 150 urte saldu zien Alaska AEBei. Baina 7,2 milioi dolarreko txekia hurrengo urtean jaulki zuten, 1868ko abuztuaren 1ean, Eduard Andreievich Stoeckl-en izenean. Stoecklek salerosketa negoziatu zuen Errusiako Gobernuarekin.



AEB-ETAKO ARTXIBO NAZIONALA

bi potentziak ahulduta, Errusiar Inperioaren posizioa indartuko zen. Baina britainiarrek ez zuten interesik agertu eta 1859an AEBei egin zieten eskaintza. Beste ezezko bat jaso zuten, Washingtonen hartan Gerra Zibila pizteko arriskua lehentasuna baitzen.

Errusiarren asmoa ez zen makaldu, eta AEBetako Gerra Zibila amaitutakoan negoziaketak berrabiarazi zituzten. 1867ko martxoaren hasieran eseri ziren William Seward AEBetako estatu idazkariarekin. Hilabetea amaitzear zela itxi zuten tratua.

Erosketa errentagarria izan al zen AEBentzat? Adituak ez datoz bat erantzunean. David R. Barker ekonomialariaren ustez, Alaskan bildutako zergek ez

dute sekula gainditu salerosketaren eta lurraldea gobernatzearen kostua. John M. Miller-en iritziz, Alaskako petrolio baliabideak ustiatu zituzten enpresek ez zuten inbertsio izugarria berdintzeko irabazirik izan. Scott Goldsmith eta Terrence Cole ez datoz bat ondorio horiek ateratzeko irizpideekin, eta barne-produktua kontuan hartuz gero erosketa bikaina izan zela diote; kalkulu baikorren arabera, 50 urtean estatubatuarrek 100 aldiz irabazi omen zuten lurraldeagatik ordaindutakoa.

2014ko martxoan, "Alaska Errusiara itzuli" mugimenduak 35.000 sinadura bildu zituen. Ez zitzaion bururatu Alaskako jatorrizko biztanleei itzuli behar zitzaiela eskatzea. ■



LOUVRE MUSEOA

Loa esplikatzeko lehen teoria

K.a. V. mendean, Krotonako Alkmeon filosofo eta medikuntzaren teorialari greziarrak loaren kausen teoria bitxia landu zuen, idatziz jasota iritsi zaigun loaren azalpenik zaharrena. Haren arabera, garuneko odol-hodiak odolez betetzean hartzen gaitu loak. Odolak garunari presioa eragiten dio eta horrek logura eragiten du. Garuna odolez

husten denean esnatzen gara. Zientzia modernoak, jakina, ez du teoria babesen, baina horrek ez ditu Alkmeonen lorpenak gutxitzen. Disekzio anatomikoaren aitzindari eta defendatzaile sutua izan zen, nerbio optikoa aurkitu zuen eta sentsazioak hautematen dituen organoa garuna dela egiaztatu zuen. ■

Non dituzu tipulak?



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Dagoeneko landatuta beharko luke tipulak (*Allium cepa*), baldin eta udako egun luzeenetara burua ederki osatuta iris-tea nahi bada. Otsaileko ilbeheran dela onena dio Oartzungo Artamugarriko Felixek. Hala ere, bere buruari nasaitasun polita ematen dio, esaerak, nonbait, honela omen dio eta: "San Josetarako (martxoak 19) tipulak landatuta behar du" bestela ez omen da-eta behar bezala osatzen. Oraindik ez baduzu landatu, esnatu eta bizkor ibili.

Tipularekin asmatzeko tokiaren auke-raketa zorrotz egin behar da. Ura ez du ikusi ere egin nahi, ez airean ez lurrian. Berozale amorratua da; beraz, eguzki-galdatan jarri, ez diezaiola aldameneko ezerk itzalik luza. Urasetutako lurra ere ez du batere gustuko. Lur buztintsu edo motela baduzu, ez ezazu tipula jartzeko lanik hartu, hobe duzu kooperatibara joan eta tipula-korda etxeratu. Lur harroa eta urak erraz ihes egiten diona maite du. Uraren beldur arrasto ttikiena edo lurrarekin inolako zalantzarik baduzu, altxa ildo bizkarrak, tontor luzeak, eta han landatu alboetan eta tontor gainean bertan. Ildarte horiek ipar-hego norabidean egiten badituzu hobe, horrela eguzkiak bere eguneroko pasieran alde biak bero-lehortuko dizkio.

Bestaldek, tipulak lur azidoa gorroto du. Hori karea dantzatzu konpontzen da: kareharri ehoa, dolomita, errautsa, kare bizia edo kare hila. Ni kare biziaren eta errautsaren zalea naiz. Kareak lurra gehiago harrotzen du. Aldiz, errautsak landarearentzat onak diren beste jaki batzuk ere emango dizkio, potasioa eta abar. Zeuk erabaki.



FOREST & KIM STARR-CC BY

Orain ez hasi ongarria ematen, lehen ongarritutako sailen batean jarri. Ondo egin gabeko ongarriak kalte egiten dio. Hurrengorako: tipularentzat izango den saila ahal duzun eta simaur edo luar zahar-zaharrenarekin udazkenean ongarritu, neguaren hasieran karea eman eta lurra bakean utzi. Tipulari ez zaio

gustatzen lur harroan landatzea, asentatutako lurra nahi du, aza jendeak bezala (*Brassica spp.*).

Tipula erosi beharrean bazara, lagun pakistandar batek erakutsi zidan: gordinik jateko tipula zuri ahal den eta zapalena aukeratu, ez dute minik ez ahosabaian ez begietan. Gozo-gozoak dira. ■



GAZTE BASERRITAR HASIBERRIAK

Prekarietateari aurre egiteko sareak josten



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Baserriaren alorrean badaude lehen-tasuneko bi kolektibo, gure ustez: bata emakumeena da, eta bestea gazteena”. Alazne Intxauspe Elola gazte baserritarrek azaldu digu elikadura burujabetzaren inguruan jarduten duten hainbat eragilek (EHNE Bizkaia, Mundubat, Veterinarios Sin Fronteras, Bizilur eta Emaus) bultzatutako azterketaren abiapuntua: sektorean hasi berri diren eta agroekologian diharduten gazte baserritarren egoera ezagutzea, baita bidean dituzten traba nahiz zailtasunak azaltzea ere.

Ikerketa ekintza parte-hartzailea

Gazte baserritarrek izan dira azterketa aurrera eraman dutenak: “Gehienetan ikerlari bat izaten da azterketa egiten duena, eta honek nahitaez bere optikarik egiten du azterketa hori”. Ikerkaldetik ere ekimeneko parte-hartzaileen artean zehaztu dituzte, Intxauspe prozesuko kideak azaldu digunez. Zailtasunak ere izan dituztela aitortu digu, hala ere: “Baserritarren parte-hartzea egunerokotasunean mantentzea ez da erraza, eta horrekin arazoak izan ditugu”.

Parte-hartzaileen artean, batik bat Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak elkartu dira, 20-40 urteren bueltan dabiltzan gazte baserritarrek. Batzen dituen ezaugarria,

adina baino, sektorean denak hasi berriak direla izan dute, sartze prozesuan dabiltzala guztiak, bakoitza bere eran.

Prekarietatearen aurrean elkartzeko beharra

“Prekarietateaz hitz egitean, denoi burura etortzen zaiguna prekarietate ekonomikoa da. Gazte baserritarren kasuan, ordea, prekarietateak hiru aurpegi dituela ondorioztatu dugu”, azaldu digu Intxauspek. Lehenik, aipatutako prekarietate ekonomikoa: inbertsioak egin beharra, laguntza ekonomiko falta, lurra lortzeko zailtasunak, eta abar. Bigarrena, antolaketako prekarietatea: era kolektiboan eta elkarlanean jarduteko zailtasuna. Eta hirugarrena, prekarietate emozionala: “Amari, aitari, edo lagunei lehen sektorean sartu behar dugula kontatzean, erotzat hartzen gaituzte, bitxiak gara denentzat”.

Nola eman buelta prekarietate horiei guztiei? Ikerketan ateratako ondorio nagusia, sarea jostearen beharra izan da: “Gazte baserritar hasi berrien arteko era guztietako sareak sortzea behar dugu: pote batzuk hartzeko, makinaria konpartitzeko, merkatu bat osatzeko, lanerako...”. Gazteak aktibatzeko eta motibatzeko, azken batean. ■

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Webguneko edukiak zure e-postan jaso ditzazun, buletin eder bat ari gara prestatzen. Bertan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak...

Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Martxoak 29: Arrasate Bizi Baratzea hitzaldia

Kulturaretoan, 19:00etan, Jakoba Errekondok hitzaldia eta kontsultategia eskainiko ditu.

**Martxoak 31: Arguedas
Elikadura burujabetzaz hitzaldia**
Mundu Bat Fundazioko Jaxi G. Viniegrak hitzaldia emango du. La Capilla Kultur-gunean, 19:00etan.

**Apirilak 1: Tolosa
Altza Porru komikihitzaldia**
Barazkien azokan, 11:30ean hasita, Jakoba Errekondo eta *Altza Porru* liburua egin duten zortzi komikilariak ariko dira solasean eta zuzenean marrazkiak egiten.

**Apirilaren 1 eta 2: Ozaeta
Zume biziarekin eraiki**
Otaza auzoan, Garaion etxean, “Otarregintza teknika diseinu eta arkitektura berdeetan” ikastaroa emango dute Joan Farré eta Carlos Fontals irakasleek. Leku mugatuak daude eta 50 euro da izen-ematea.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN
edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO
www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

GORKA SUAIAREN DISKA BERRIA

1

Ahots gabekoen mikroa helduz

Zeren bila zabilta? Irrati formula, ala seinale askea? Entretenimendua, ala esnatzea behingoz? Erritmo alienatzaileak, ala dantza subertsiboa? Pilula urdina ala gorria? Hip-hopak, mugak guk geuk jartzen dizkiogula gure buruari erakutsi zion Gorkari; baita musika eraldaketarako tresna izan behar dela ere. Ibilbide horretan egingo dugu topo Gorkarekin, he-donismo musikaletik urrun, ahots gabekoen mikroa helduz. Piztu! Mix-tape Gorka Suaiak 2016an dakarren lan berria da, Kimo Soundz Djarekin batera. Azken urteetako ibilbidearen lapurpen ezinhobea da, hainbat estilo desberdin (dancehall, dub, jungle...) elkartuz, eta kanta argitara-gabeak, berriak zein erremixak batuz, edukiaren izaera kontrainformati-boa biziki zainduz. Taupakak argitaratu du lan hau, kultura askea eredua zabaldu nahi duen euskal sortzaileon elkarteak. Apirilean zehar lau disko zozketatuko ditugu ARGIA Jendearen artean.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



taupaka

TAUPAKA

info@taupaka.com
(0034) 688 840 713

#autoekoizpena
#musika
#kulturgintza

Apiroleko sariak

1



Gorka Suaiaren diskoa
4 KD

2



**Globalizazioa eta Autoeraketa
(Lanki ikertegia)**
4 liburu

3



**Birak Handmade-ek
egindako gerrikoak**
2 gerriko

4



Zeluloidezko begiradak
4 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



ARGIA JENDEAREN EKARPENA

Kimutx proiektua



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Gurasotasunaz hitz egiteko ez naiz ego-kiena izango, azal horretan jarri gabe-koa bainaiz; baina gurasotasun premie-tatik abiatutako proiektua da Kimutx, eta badu ARGIArekin lotura berezia. Baina ezagutu ezazu lehenengo proiektua, eta gero kontatuko dizut lotura irakurle. Haurren heziketan egunerokotasunean sortzen diren zailtasunak lantzeko beharra ikusita jarri zen mar-txan proiektua 2012an, borondatezko lana ardatz.

Suertatzen diren egoera desberdinak musikatik gozatzearen bideari heldu zioten lehendabizi, abestiekin. Kimutxek beti izan du, ordea, bizi garen he-rriaren eta honen kulturaren presentzia. Maitasunez eta maitatzeko egindako materiala osatu dute azken bost urte hauetan, ulertuta haurrek modu era-kargarrian entzun eta sentitutako gau-zak maitatu eta errespetatuko dituztela, gure kultura kasu, eta inguruan duena maitatuz bestelako kulturak balioesteko aukera aberatsagoa izango dela.

Abestiekin martxa hartuta heldu ziren ondotik ipuinak eta irudiak. Abestiekin transmititzen da maitasuna, eta maizta-sunez erabiliz garatzen du haurrak ere memoria eta erritmoa. Ipuinak euskal mitologiara gerturatu dituzte ondare

kulturala transmititu eta balore garran-tzitsutzat dituztenak bertan txertatuz. Irudien edo txotxongiloen bitartez hau-rrek irudimena landuko dute eta bai gu-rasoari eta bai umeari aukera zabala ire-kiko zaio jolas egin, ikasi eta gozatzeko. Baina hau guztia nondik nora lotzen da ARGIArekin? Galdetu duzu honezkero, irakurle. Bada egiteko modua bera, filo-sofian bat egiten dugu: auzolanean egin-dakoa, euskaraz, irekia... www.kimutx.eu webgunea sortu zuten lehendabizi material hau guztia biltzen eta zabal-tzen joateko. Ondoren etorri zen eus-karri fisikoa. Baina argi zuten baliabide gutxirekin eta lizentzia librean eginda-koa izango zela, hau da, edonorentzat irekia izango zela proiektua.

Kaleko denda batzuetan salgai egon ondoren, orain denak ARGIAren denda-jartzea erabaki dute, eta salmenten ira-bazia ARGIArentzat izatea. ARGIA jen-dea izateko beste modu bat da hau: ez da beharrezkoa harpidetzarik egitea, baina Kimutxek duena eskaini digu gure filosofiarekin bat egiten duelako. Dagoeneko ARGIAren denda topatu daiteke Kimutx: ARGIA jendearentzat 18 euroan, gainerakoentza 16euroan. Mila esker Kimutx, geroztik eta ARGIA jen-de ghiago gara. ■

“[ARGIAkoa egin naiz] euskaraz emandako kalitatezko informazioa bermatzen delako”

Pedro, ARGIA-jendea

AGENDA

Blogetan! euskarazko blogen lehiaketako 2. edizioko sari banaketa eta topaketa

- Martxoaren 30ean, 15:30ean, Bilboko Euskararen Etxean. Hona egitarau osoa:
- 15:40 Antonio Ortizen hitzaldia (WeblogsSL).
- 16:10 “Blog bat edukitzerakoan kontuan izan behar diren gako juridikoak” Ion Turrillasen hitzaldia.
- 16:30 Blogintzaren inguruko inkestaren emaitzen aurkezpena.
- 16:45 “Garapena, posizionamendua eta baliabideak” mahai-ingurua: Dabid Martinez (Bai&By), Urtzi Odrizola (Codesyntax), Arkaitz Sukuntza (TaPuntu) eta Eli Garcia (MU).
- 17:35 “Sustapena, publizitatea eta monetizazioa” mahai-ingurua: Gorka Julio (Talaio Kooperatiba), Haritz Rodriguez (Blog on Brands), Iñigo Arandia (Kaixomaitia), Aida Solores (Arteman komunikazioa) eta Ixabel Bereziartua (ARGIA).
- 18:25 Blogetan! lehiaketaren sari-banaketa.
- 18:45 Pikoteo-solasaldia.



Martxoko sarituak

- **Arabako Bertsolari txapelketako finalerako bi sarrera:** Xabier Romo (Gernika-Lumo), Olatz Agirre (Gasteiz).
- **Solte taldearen diska:** Marian Goikoe-txea (Iruñea), Unai Karmona (Donostia), Mikel Leunda (Erretera), Oier Peña-garikano (Antzuola), Alazna Gonzalez (Lazkao).
- **Qissat liburua:** Luis Goñi (Iruñea), Idoia Ormaetxea (Durango), Jose Markaide (Gasteiz), Raco de la Corbella (Valentzia).
- **Lekore sorta:** Iñaki Olalde (Arrasate), Eñaut Frantsesena (Bilbo), Olexako Udal Liburutegia (Orexa).



Edward Rosset idazleak ez du
idazteko aholku hoberik ezagutzen:
"Ekin eta ekin, ez eman amore".

Mr. Rosset:

aurkikuntza harrigarri baten kronika

Batzuetan, egia ez da egiantzekoa. Fantasiar egin dirudi, kasualitate kateatu gehiegi... Egiak, batzuetan, gezur itxura du. Zure esku dago betiere, irakurle, benetako istorio hau sinetsi, edo ez.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Ion Olano Carlos
@sartuda

Lerrook sinatzen dituen Kazetari Prekarioak (aurrerantzean, KP; edo, are atseginago, Kepa) gurasoenera itzuli behar izan du berriki, bere kasa etxerik ordaintzeko gauza ez denez. Loaren bareak hartzen ez duen gau batez, gurasoen liburutegiko izenburu batek lapurtu dio arreta: *El estratega cartaginés* (Mundo Conocido, 1999).

Kartagoko Anibal zenaz dihardu nobelak, gaztelania txukunean. Egilearen biografiari erreparatu dio, loak hartu aurretik: Edward Rosset, Oñatin (Gipuzkoa) jaioa, Libian soldadu ibilia. Bibliografiari begiratuta, historia belikoan eta euskal nabigatzaileetan aditua dirudi idazle oñatiarrak. Aztoratuta geratu da Kepa, harri horrek jo duelarik bere ikerlari gogo.

ARGIAren argi berdea ikusita, abian jarri da. Ikertzen hasi eta berehala topatu du www.edwardrosset.com webgunea, eguneratu gabea, ikusi duenez 2013koa dela azken berria. 21 nobela ditu idatziak, eta horietako batzuk zine-

marako egokitzen hasia zen Rosset urte hartan, sareak dioenez. Horrez gain, webgunean badira idazlegaienezako aholku zentzudun batzuk, baita idazlearen biografia zabal samar bat ere.

Oñatin jaioa izanagatik, Erresuma Batuko hiritarra zenez, soldadutzara deitu zuten 1959an Edward Rosset gaztea. Ikasketak utzi, eta RAFeko (Royal Air Force) irrati-telegrafista moduan sartu zen armadan. Libiako basamortura bidali zuten, eta han eman zuen bola da luze bat. Ikasketak postaz amaitutakoan, *freelance* kazetari lanak ere egin zituen, denbora pasatzeko, eta ofizioan aritzeko; hara, gure Keparen moduan.

Geroago itzuli zen Euskal Herrira, Irunera hain zuzen, eta han sortu zuen Stanley argitaletxea, ingeles eskoletarako prestatzen zuen materiala argitaratu emate aldera. Literatura ere idatzi izan du, barra-barra, eta webgunearen arabera, zeregin horri eusten dio, egun ere. Baina, eguneratu gabe dagoenez, auskalo non eta zertan dabilen orain. Halako zirrara batek hartu du Keparen bizkarrezurra, orno guztiak banan-banan, kontaktu atalean ikusi duenean telefono zenbakia, itxuraz, Irungoa.

Stanley zena

Emakume ahots batek erantzun dio kazetariaren deiari, hariaren bestaldean. Baietz, berehala jarriko dela Edward. Benetan ari dela dirudi. Aurkikuntza baten atarian sentitzen da Kepa, nola esan, Stanley eta Livingstone elkartu aurreko unean bezala. Gizon ahots batek hitz egin du: bera da. Kazetariak eta Rosset jaunak adostu dute bigarrenaren etxean bilduko direla arratsalde horretan bertan. Elkarriketaren, idazlearen emaztea ere presente egon da, Elvira

Gomez anderea. Lagungarria izan da zinez, zenbait izen eta datu zehatz gogora ekartzeko.

Nongoa sentitzen den galdetu dio Kepak. Irribarrean piztu zaio Rosseti. Beregatik balitz, dio, Oñatira joango litzateke egunero edo, tira, sarri samar. Urbiako zelaian badutela txoko berezi bat, sagardo botilak freskatzeko erreka eta guzti. Zerueta paradisia lurrean. Hori dela beretzat inguru hura, bere jaioterria, Zubillagan sortua baita. Baina, Rosseten esanetan, gero eta zailagoa dauka hara igotzea. Kepa ohartu da, jakina, 1938an jaio zenez, laurogei urteren bueltan dabilela Rosset jauna; nahi baino gehiago kostatzen zaiola ibiltzea, nahi ez duenean ere mugitzen zaizkiola eskuak.

Galdera xelebrea otu zaio Kepari: "Sutatik salbatu beharko bazenitu zure hiruzpalau liburu, zeintzuk lirateke aukeratuak?". Birritan pentsatu gabe erantzun du oñatiarrak: lehenbizi, *Los navegantes* (Edhasa, 2006). "Eta ez bakarrik nire gustukoa delako, baizik eta mundu guztiak esan didalako. Honez kero badira hamasei urte argitaratu nuela, eta oso ondo saltzen da oraindik ere. Esango nuke nire *best seller* dela". Gero, *Los hielos de Terranova: balleneros vascos* (Edhasa, 2016), azkena izaki, kuttuna du hori ere. "Oraindik amaitu gabe dago. Lehen zatia eman nuen argitaratu, eta bigarrena prestatzen ari naiz, ea...". Elvira emazteak dioenez, lehenengo primeran zabaltzen ari da.

Azkenik, Edwardek hatzaz seinatu du *Roncesvalles* (Reyes Astures, 2007), burura eramaten duelako trilogia (*Tierra Quemada* eta *Invasión* lanekin batera). "Hiru liburukote dira, 650 orrialde bakoitzak, imajina dezakezu nolako


lana... Egia esan, oso harrera ona izan du; hainbat irakurle jarri izan dira nirekin harremanetan, esanez izugarri gus-tatu zaiela, ezin ziotela irakurtzeari utzi, eta abar. Horrek balio handia du niretzat". Elvirak ekarritako ur tragoa hartuta, erantzuna borobildu nahi izan du idazleak: "Aipatutako lau zapabost liburu horiek dira, nire lan guztien artean, nola esan... seme-alabatxo modukoak".

Rosseten obsesioa

Kazetariak galdetu dio idazleari zein harreman duen literaturarekin, alegia, zer eman dion, eta zer hartu. Irria askatu du Rossetek. "Hartu, denbora! Tira, baina hartutakoa emana ere badenez, gaitz erdi. Eta eman, nire buruarekin gustura egotea, *self satisfaction*... horrek ez dauka preziorik. Idatzi nahi izan dut betidanik, gazte nintzenetik". Hizpide hartu ditu orduan Libiako soldadutza garaia, bi urte eta erdi luze, kanpin denda batean sartuta. Bertako liburutegi urriko liburu guztiak irakurrita, idazten hasi zen Rosset gaztea, kazetaritza ikasketak postaz amaitzearekin batera. Gomez andereak gogora ekarri du Londresen nobela labur batzuk idatzi eta argitaratu zituela, baldintza onetan. "Halaxe da," esan du Rossetek, "nahiko ondo ordainduak, gainera. Baina orduko diruak eta oraingoak ez dute zer ikusirik..."

Ura edanik, Stanley argitaletxearen berri jakin nahi izan du Kepak. Kolpean oroitu da Rosset: "Irunera etorri nintzenen izan zen. Nire aitaren izena zen Stanley, alegia, Victor Stanley Rosset. Ingelesa zen, Letchworth herrikoa [Londrestik 50 km iparraldera]; Donostiako Getaria kalean denda erraldoia zeukan, eta erreka jo zuen. Dena galduta, ingeles eskolak ematen hasi ginen Irungo Aduana kalean, eta hala eman genituen hainbat urte. Aita hil ondoren, nik jarraitu nuen, eta eskoletarako sortzen nuen materiala argitaratzen hasi nintzen, neure kabuz, Stanley argitaletxean. Ia hilero ateratzen nuen lan berriren bat: egin kontu... hogeitaz urte pasatxo, 210 liburu".

Dibulgazioa aipatu du Kepak, nabari dela Rossetek garrantzia ematen diola horri, baita literatur lanetan ere. "Jakina", dio idazleak. "Beti izan naiz irakaslea, eta irakaskuntza maite izan dut betidanik. *In the back of my mind*, gogoaren barrenean, ideia hori izan dut: gauzak irakatsi behar dizkiot jendeari. Horren-



Irudian, Kazetari Prekarioak gurasoenean topatutako liburu eskainia, eta Edward Rosseten autobiografia pribatua.

» Hizpide hartu ditu Libiako soldadutza garaia, bi urte eta erdi luze, kanpin denda batean sartuta. Bertako liburutegi urriko liburu guztiak irakurrita, idazten hasi zen Rosset gaztea

» Aita ingelesa zuen, Donostiako Getaria kalean denda erraldoia zeukan eta erreka jo zuen. Dena galduta, ingeles eskolak ematen hasi ziren Irunen

bestez, hortik zehar topatu dudana liburu arraro oro harrapatu dut, eta gauza berriak atera ditut horietatik". Ohiko galdera atera du orduan kazetariak: ea zein den, Rosseten ustez, idazteko eman duen aholkurik onena. "Ekin eta ekin,

ez eman amore... Hor nonbait dabilta kontuak". Irri konplizea ireki zaio Kepari, ezinbestean.

Amaitzen ari da elkarrizketa, hala-beharrez. Kepak badaki. Aparkatzeko tikteta iraungiko zaio gutxi barru, eta ez du isunik ordaintzeko gogorik. Webguneaz ari direla, kazetariak aipatu du azken informazioa 2013koa dela. Zinemarako egokitzapenez galdetu dio Rosseti, ea porturen batera heldu den egitasmoren bat. "Bada, oraindik ez. *Los navegantes* lanarekin hasi nintzen, eta honezkero baditut gordeta hiruzpalau egokitzapen. Inork interesik izango balu, merke-merke salduko nizkioke... kar-kar!".

Sakelako grabagailua itzali, eta argazki batzuk atera ditu Kepak, ahal duen hoberen, intrusismo txikiak dakarren latsa puntuaz. Atera aurretik, isunaren arriskua areagotu arren, gurasoenetik hartutako *El estratega cartaginés*-en alea sinatzeko eskatu dio idazleari, harro eta lotsagorrituta aldi berean, kazetariak. Bostekoa emanez agurtu ditu biak, Edward eta Elvira. Irungo kalera atera denean, arrapaladan aparkalekurantz, indarberrituta sentitu du barrenean, nolabait esatearren, nabigatzaile sena, ikerlari-kazetariarena. Aspaldiko partez, bere txikitasunean, handi sentitu da Kepa. ■



Mainer Lopez

Errealitatearekin jolasean



Xabier Gantzarain
@gantzarain

ITURRIAK (2016)

Instalazioa espazio publikoan.

2015eko udazkenean, 40 urterekin, etxera bueltan zen Mainer Lopez (Donostia, 1975eko martxoaren 22a), erakusketa zeukan Koldo Mitxelenako aretoan, azken hamar urtetako lanen halako errepaso bat. Ez atzera begirakoa inondik ere, baina bai bere lanak harremanetan jartzeko modua, osotasun batean ikusteko, konstanteak antzemateko, jaidurak nabaritzeko.

Hauze idatzi zuen Fulya Erdemcik: "Gauzen ordena zertxobait aldatzen, mugitzen edo aldatzen denean gertatzen dena ikusaraziko digu Mainer Lopezek. Eguneroko bizitzarekin, inguratzeko gaituzten espazioekin edo per-

tsionen arteko harreman arruntekin loturiko xehetasun txikien bitartez, gure begiak gauzen egiturara edo ordenara zuzenduko ditu. Hala, guztiak direla ahulak eta beste modu batera ere izan litekeela ulertaraziko digu".

Ataskoa sortu zuen Intzan, toaila gorriaz bete zuen Itzurun, futbol txapelketa bat antolatu zuen polderretan. Eraldaketa sinpleak denak ere, sotilak, baina ikusgarriak aldi berean. Gure errealitatea, hain egoskorra eta sendoa dirudiena, aldakorra eta arola da zeharo.

2016ko urtarrilaren 23an inauguratu zuten *Iturriak*, Europako Kultur Hiriburutzaren inaugurazio-programaren

barruan. Ondarretako jardinetan jarri zuen instalazioa artistak: kaletik erretiraturatuko 13 iturri.

Ez da ohikoa: Koldo Mitxelenako erakusketan, instalazioa bera jarri aurretik, *Iturriak* instalazioa prestatzeko erabilitako dokumentazioa erakutsi zuen artistak: zein ziren 13 iturriak, horiek kentzearen arrazoia eta urtea, bai eta haien kokapena zein zen ere.

Bestela neurtzen zailak diren kontuak dira: urbanismoak gure bizitzetan duen eragina, espazio publikoak jendea egiteko daukan ahalmena, pertsona eta kolektibo gisa nola eraikitzen gaituzten alegia. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Eginkizuna eta dinamika



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Politikaren atarian

RIKARDO ARREGI

Lur, 1969

“Merleau-Pontyk asko inpresionatu zuen Rikardo Arregi”. Horixe irakur daiteke Joxe Azurmendiren *Oraingo gazte eroak* lanean. Halako zirrarra bat eragin zidan. Ez dakit zehatz zergatik, agian oraindik batzuek (Marina Garcés filosofoak, esaterako) errebindikatzen duten autore ez bereziki kanoniko bat gure 60ko hamarkada hartan garaikideki irakurtzen zelako. Rikardo Arregi, kazetaritza sariketaz harago, ezagutzeko beharra dator jarraian.

Zergatik ez hasi *Politikaren atarian*, lehen liburu, postumoarekin. “Zientzia politikoaz egiten den euskarazko lehendabizikoa da”, autorearen hitzetan. “Besteak ikasi dutena guk ere ikasi ta gerekasa pentsatzen” haste-ko gomita. “Atari bat izateko asmoa du liburu honek”: lehenik politika hitzari buruzko argibideekin; politikologiaz mintzo den bigarren zati batekin; azkenik zenbait filosofo-oren teoria politikoen laburpenak ekartzeko: Platon-Aristotele, Montesquieu, Hobbes eta beste, guztira zortzi –pena da Merleau-Ponty ez egotea-. Autoreez gauza bitxiak irakur daitezke: “Montesquieu-ri bere liburu guzietan gizon zoriontsu bat bezala azaltzea gustatzen zaio”. Baina, oro har, gaur egunean erreferentziazko diren pentsalariak erabiltzen dituzten ideiak: “Ekonomiak politika baztertu ta bigarren maila batean jartzen du”, adibidez, Michel Onfray dio hitzez hitz, *Politique du rebelle* izenekoan.

Lur argitaletxearen sail berri bat abiatu zuen liburuak. Rikardo Arregiren beraren ideia izan zen saila: “100 bat paiako liburuxkak ateratzea, dibulgazio eran, gaurko kulturari buruzkoak”; “ez ditezela izan, mamia-

ren aldetik, pauso bat atzera gaur eguneko euskal kulturaren egoeran”. Ezein baliabide baztertu gabe helburu horretarako (“Plajiatzearen beraren beldur ez gara izanen”). Liburuak dakarren hitzaurre mamitsu batean bildu ziren ideiak, “Euskal liburu-gintzaren problematika”, zeinari Martin Ugaldek ia garrantzia gehiago eman zion 69ko kritikan, segidan datorren testuari baino.

“Ibiltzen ausartu behar dugu, eta behin emandako pausoak ez kanonizatzen”. Rikardo Arregiren lehen irakaspena gure hori, Joxe Azurmendik *Herriaren lekuko*, bigarren liburu postumoan dioenaren arabera: “Herria hezi nahi zuen Rikardok, eta hezi ere maisu bezala ez baino solas eta lankide bezala gehiago. Hezi, hots, ez propaganda egin bakarrik. Ezta irakatsi bakarrik ere. Rikardok lanaldi baten hasieran lan egin zuen: eginkizuna eta dinamika utzi dizkigu, eta hortxe dago bizirik Rikardo”. Joseba anaiak ere aitortu zion, ETBko ekinaldi batean: “Gu denon artean azkarrena zen” –eta badu meritua, Joseba bera oso azkarra izan baita, besterik ez bada jakaz aldatzen-. Azurmendirekin, amaitzeko: “Gu haren atzetik gabiltza, baina jadanik hura baino arrerago”. ■



Rikardo Arregi
Aranburu idazlea
(Andoain 1942–Eibar 1969).

» TELEGRAMA


Donostiako Garoa Kultur Lab-en egitekoa zen, baina lokalaren itxierak derrigortuta Tabakalerako Kutxa Kulturren egingo da: **Elliot Murphy**ren kontzertuaz ari gara. Apuntatu: martxoak 31, 20:00 #PaperezkoKontzertuak *STOP* Espainiako indie musikaren erreferenteak dira eta Bilbora datoz: **Love of Lesbian** Santana 27 aretoan ariko dira martxoaren 31n *STOP* Iruñeko Zentral aretoak bigarren urtez antolatu du **Brutenfest** jaialdia, non bost talde nafar entzuteko aukera izango den: Bastart Kowboys, Xoriñoak Kaloian, The Broken Horizon, El Portal de Jade eta VertiGo. Apirilaren 1ean da zita *STOP*

» DISKOA

Tematu eta tematu, ase arte



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara



Azpisugeak
KASKEZUR

Autoekoizpena, 2017

Topikoetatik tiraka ezin ukatu nafarrak burugorrrak direla, eta horien artean hala behar dute izan Kaskezur taldekoek. Aspaldi da zakur bat espaziora bidali zutela hark bizi hobea ezagutu eta bueltan beraiei kontatu ziezaien. Gero, 2011n, zakurra noiz bueltatu itxaron bitartean, trebatuz eta irudimenari hesiak zabalduz, *Gure jokua* kaleratu zuten: irekia erabat, estiloz estilo salto egin eta patroiei entzungor egiten ziena, lotura eza eta dibertimendua ereinez. Bi urte geroago, aldarte serioagoarekin bueltatu ziren gure orriotar eta ilgorak behar duen errespetuarekin izen bereko diskoa kaleratu zuten. Serioago eta irmoago, pop-rockari post-hardcorearen sendotasuna itsatsi zioten, ilunago batzuetan eta umore finarekin beste batzuetan.

Laukotea erabat barneratu da 90eko hamarkadan sona eta arrasto nabaria utzi zuen noise-pop edo indie delakoan, ez edonola gainera. Gerora, beste askok bezala, etiketa horiek sena galdu badute ere, gutako batzuen iruditerian zizelkatura daude distortsio, melodia bihurri, intentsitate eta energiaz betetako kantu melodiko eta bizi haiek. Eta hala egin dute, barrenak askatuz, mugak bilatuz eta batez ere disfrutatuz. Hala transmititzen dute.

Itsasoen norabidea aldaraziko duen *Olatua*-k malenkonía, energia eta kiloko pop-rock oparia ditu bere baitan; giza-lege aldaketan salbu ez dagoen *Beti berdin* Ama Sayren ahaide da eta, jostari, gai da *in crescendo* distortsioan amiltzeko. *Azpisugeak* gurutzatua minimal-oso da: Fugaziren tankerako bihozkadak zelatan irudimen handiko pop-rocka du segida. *Sonik II*-k guztia eman nahi du bidegabekerien kontra: psikodelia, power-popa, noisea eta kaos kontrolatua. Ederra! *Lore sorta* arnasa moztan duen noise-pop bizi eta kiribilkaria da. *Dena argi ikusi nahi nuen* rockeroena, zuzena. *Uhin ertzak* irlarako bidaia-laguna da, ez zaio ezer falta: askatasunean hazi eta erabat basati bihurtutako power-pop perla energetikoa. *Arantzez josita gaudelako* berau hauskorra da, pop malenkoniatsua. *Eten zen denbora*-k pop-rock jostari eta alaietatik noisearen erraietara bidea egiten du. Eta, azkenik, akustikoa interpretatutako *Lumik gabeko oiloak* sarkorra da. ■

Kaskezur talde baztandarreko kideak.



Eta zenbait urte pasata bueltan dira baztandarrak mimoz eta lan handiz prestatutako *Azpisugeak* diskoa jendaurrean plaza-ratzera. Mimoz diot, emaitza eta kantuen ñabardurak azpimarratzekoak direlako. Berako Atala estudioetan grabatua izan da Iñigo Irazokirekin eta ekoizlea Ibai Gogortza (Borrokan) izan da. Zinez lan esker ga egin dute guztiek.



Ingelese ez, mesedez

DOS POR DOS

XABIER MONTIOAREN KONTZERTUA

Izenburua: *No english, please.*

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean. Martxoaren 19an, iluntzeko 19:00etan.



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

Igande iluntzea. Etixerako gogo gehiago, kalerako baino. Xabier Montioa zeto-rran, ordea, eta joan beharra zegoen. Norbere buruari esan: “Merezi izango dik”. Jantzi beharrekoak jantzi, eta kalera, gorputzak eskatzen zuenaren kontra. “Nori bururatu zitzaioan igandetan ere kontzertuak egitea?”, “Igandeek ere balio ditek kontzertutarako?” Galdera horiek ere, buruan.

Azken aldiko formazioarekin etorri zen gasteiztarra: Ibon Rodriguez gitarran eta pianoan, eta Itziar Lertxundi celloan lagun zituela. Baina errepertorioa ezohikoa zen, Izar & Star ziklorako bereziki prestatutakoa, bere kantuz eta bertsioz osatua. Eta bertsioak ere, irizpide jakin bati lotuak: ingelesez ez beste hizkuntzatan, batez ere anglofonia den eszena baten ifrentzu modura edo. Kantatu zuen gaztelaraz, katalanez, portugesez, alemanieraz, galegoz, italianoaz, eta, noski, euskaraz; ingelesa, izenburuan besterik ez *No english, please*.

Oihanederreko sarrerara sartu nintzenerako jotzen ari zen taldea: Ruben Bladesek Hector Lavoerentzat idatzitako *El Cantante*-rekin ari ziren, eta gerora jakin nuen ez honekin hasi ziren, nahita. Halaxe zioen entzun nien lehenengo esaldiak: “*Hoy les dedico mis mejores pregones*”. Intentzioak, argi.

Segidan etorri ziren *Aspaldiko Danborrak* jatorrizkoan: trip-hop kutsukoa, konponketa berriarekin; Bertolt Brecht eta Kurt Weill-en *Die Moritat von Mackie Messer*, ni bezalakoentzat *Mack the Knife* zena ordura arte; erromantze galego dotore bat; oraindik kaleratu gabeko pare bat kanta; Maria del Mar Bonet-en *Merce* dotorea, formatu honetan are dotoreago egin zitzaidana, eta beste hainbat. Amaierako *Zugan Gogoa* klasiko dantzagarria arte, horrelaxe: bertsioa, kantu propioa, bertsioa...

Dagoeneko hiruzpalau formatutan ikusia nago Montioa: garai bateko superbandarekin, aurrena *Ni ez naiz...* aurkezten,

Gaztetxean: bi gitarraren laguntzarekin, Hala Bedi Tabernan; gitarra bakarrarekin, IBUn; eta azken formatu honekin, pare bat aldiz. Eta denetan ongi, gustuz. Sekula ez da izan lehen lerrokoa, areto handiak erdi betetzekoa ere ez; baina zaleon pozerako isilik gelditzekoa ere ez da izan, ezta formula batean egonkortu eta bertan goxo egitekoa ere.

Izan zen esan zuenik lekua ez zela egokiena, oihartzun gehitxo zegoela eta ez zela behar bezala entzuten. Ados, ez da kontzertu areto bat, jauregi baten patio handi sabai altuduna baizik. Ez zen eraiki propio horretarako; baina zer nahi duzue esatea, niri gustatu zitzaidan: ematen zion halako oihartzun bat, cello-gitarra-ahots konbinazioari on egiten ziona.


Igande iluntzeko gorputz nekosoari, buru motelduari ezin hobeto etorri zitzaien emanaldia. Astea amaitzeko edo hasteko, “pa pa ra ba pa pa” ezpainetan izatea baino hoberik ez da. ■

Egilea: Ana Zambrano


Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Urbizi plataformako Fito Jimenezek esandako esaldi bat irakurriko duzu.

“



”



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.


7	6		8	3		5	4	9
1		5	2		4	7		
		8			3			
		7				5	3	
	5		3	7	9	2		
3	8				9			
		6			4			
		9	4		7	6		8
5	4	3		8	6		7	1

6		8	7			9		
				8	3			
		3		4	1	6		5
5						1		
	3	4				8	6	
	2							3
3		6	4	1		9		
		7	3					
1				7	4		6	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Esaten duena. 2. Sagardoa ekoizteko fruitu. 3. Nabari. 4. Intsektuen kumea.
5. Hatzak.



Hizki berak

Osa itzazu hitzak, falta direnak hizki berak direla kontuan izanik; hori bai, hurrenkera ez da zertan bera izan.

1				A	I	N	A	K
2	L		T	R	A	D	U	N
3	A	Z				G	A	I
4	J	A	U				X	E
5	E	L	K	A				A
6	D	E	M	O	N			

Ebazpenak

9	1	2	5	8	7	4	3	6
4	5	7	3	9	6	1	2	8
3	8	6	4	1	2	9	5	7
8	2	1	6	7	9	5	4	3
7	3	4	1	2	5	8	6	9
6	5	1	3	7	9	4	8	2
5	6	9	8	3	4	7	1	2
4	7	2	6	5	1	3	8	9
3	8	4	5	1	2	9	6	7
2	1	9	4	5	7	6	3	8
1	3	5	2	9	6	4	7	8
9	4	8	7	6	5	1	3	2
8	6	3	1	5	4	2	9	7
7	5	2	9	1	3	8	6	4
6	4	8	7	5	3	2	9	1

Puzzlea: "Guk uste dugu ura ibaian dagoela inon baino hobeki. Batzuek uste dute zenbat eta urtegi gehiago ordutan eta ur gehiago dugula, eta hori ez da egia".
Hizki berak: 1. Esale. 2. Sagarrak. 3. Ageri. 4. Larba. 5. Eriak. 6. Elkartea. 7. Letradun. 8. Aztergai. 9. Jauretxe. 10. Elkartea. 11. Demontre.

Isabelle Sentis. Historia, lesbianengandik



Historialaria da Sentis. Historialaria, aktibista, feminista eta lesbiana. Unibertsitatetik kanpo, nahiago du herri ikerketaren bidez historia ikertu, horizontaltasunari lotua. Emakume eta lesbianak ikusezin bihurtzeko mekanismoaz kontzientzia harturik, deseraikitzen eta beste historia bat idazten ari da. Bidea oraindik luzea izan arren, baikor begiratzen dio geroari ikerlari frantziarrak.

“Garrantzitsua da fabrikatu gaituenaz kontzientzia hartzea”



Jenofa Berhokoirigoin
@Jenofa_B

ARGAZKIAK: CAROLINE BARBARIT

Ikusezintasuna beti eta beti

“Bigarren Mundu Gerlan ekialdeko Pirinioetan izandako erresistentzia gune bati buruz egin zuen ikerketa historialari gazte batek, duela bospasei urte. Emakume batek beste emakume batzuentzat sortu gunea zen. Kasu honetan emakumea lesbiana zen, historialariak bazekien. Alta, inoiz ez du lesbiana identitatearen berri eman. Ikusezintasuna erreproduzitzen zebilen historialari horrek errabiatu ninduen! Kasik lotu nintzen berriro historia ikasketei”.

Emakumeak ez dira historiaren subjektu, are gutxiago lesbianak.

70eko hamarkadako emakumeen mugimenduak azaleratu zuen ikusezin bihurtzeko mekanismo hori. Historia emakumeengandik begiratzen jarri ziren. Gu ere horretan gabilta, belaunaldi berri gisa, aitzinekoen ekarpenei gure perspektiba eta nozio berriak gehituz. Bidea luzea da, baina hobetuz doa egoera. Usu gu geu gara ikusezintasunaren eragile, deseraikitze kolektiboa zein indibiduala dugu oraindik egiteko.

Nola burutzen da ikusezintasuna?

Hasteko, bere arau erabat patriarkalekin frantses hizkuntzak ikusezin bilakatzeko dituen gertakizun batean egondako emakumeak. Historialari eta militante batzuek ere memoriaren moldaketan parte hartzen dute, zapalkuntza-eskema erreproduzitzen.

Historien hierarkizazioa salatu ohi duzu.

Historia idazten duten instituzioek egin ohi dute, baina baita gertakizun baten arrastoak esku artean dituztenek ere.

Gainera, lekukotasunik uzten ez duten ala oso gutxi uzten duten emakume anitz daude oraino, haien ustetan “baliogabea” edota “naturala” delako. Kontzientziaziorik ez izanki, historiak biltzen ari direnen partetik ez dira galdekatuak. Garrantzitsua da norberak bere koka-guneaz kontzientzia hartzea, fabrikatu gaituenaz kontzientzia hartzea.

Coming out-ak badu garrantzia.

Heterosexismoaren aurka borrokatzeko ezinbesteko armak ditugu goraki errate horiek. Historia idaztean, sindikalista ala antifaxista bat lesbiana zela zehaztu eta “zergatik diozu hori?” galdetu ohi digute. Ez dira ohartzen esaldi horrekin etengabea produzitzen ari garen heterosexismoari oztopo egiten diogula. Hala ere, neurritz nabil, ikusirik 40-50eko hamarkadetako emakumeek ez zutela “lesbiana” hitza erabiltzen. Hizkuntza izugarria da, giltzatzen gaitu, zapalkuntza-sistemaren eskuetan da.

Izaera heterosexuala, haatik, sistematikoki planteatzen da.



QueerCode (www.queercode.net) plataforma numerikoaren sortzaileen artean da Isabelle Sentis. Bigarren Mundu Gerlan emakume zisgenero eta transgenero lesbianek egindakoaren eta bizi izandakoaren berri ematea dute helburu.

Heterosexualek ere dute heteronormatibitatearen kontra borrokatu behar. Historia aztertzean jendeen arteko harremanei so egiteko joera bada. Hor ere normak diktatu harremana da kontuan hartzen, beste forma bat duten harreman amoros, afektibo, erotikoak eza batuak dira. Kontu pribatutzat hartuak dira, edo epaitzen dira, edo ez dira aipatzen. Pribatua politikoa dela ohartarazi behar dugu oraino, matrize horien deseraikitzea ez delako egina.

Beste historia batzuk ditugu historia ofizialaren bazterrean. LGBTentzat ere horrela dea, jakinik luzaz eta oraino anitzek dutela haiena isiltzen?

LGBTen historia bat badela erran neza ke. Intimoarekiko harremana ezberdina izaten da kulturen arabera. Frantziari dagokionez, adierazteko bidean oraindik egitekoa bada. Baina haiena bizitzeko borrokak eta sareak egin zituztenak ere badira. Horien berri ukaiten hasten gara, armairutik ateratzen hasten dira. Sentsibilizazio lan handi baten emaitza da. Bere homosexualitateari buruzko

testigantza plazaratu zuen Pierre Seel laguntzeko aukera ukan nuen. Solas homofoboez sumindurik, lekukotasuna emateko urratsa egin zuen. Homosexuala izateagatik deportatua izan zen 1941ean. Bizirauteko estrategia gisa, bikote heterosexual batean bizi izan zen. Urteak eta elementu askatzaile berezi bat behar izaten dira urratsa emateko.

Batzuek diote ez zela homosexuala izateagatik nehor deportatu Frantzian.

Konplexua da afera. Sexualitatei buruzko soak konplexuak dira. Foucaultek zioen gisara, dena da behatua, normak daude, kodeak, debekuak... Gerla garaian sexualitateak traumatikoak izan daitezke, bortizkeria anitz delako. Bizirauteko estrategiak planteatzen dira. Tabuak ere badaude, ahanzi edota gorde nahi diren bizipenak. Aitorpena nola egin, galdera hori ere hor da. Gainera, errealitate ezberdinak ziren, herritar-tasunaren eta egoera politikoaren arabera. Ehun bat gizon lirerateke deportatuak izan homosexualitateagatik. Beste batzuk pertsegituak izan ziren homo-

sexualak izateagatik eta deportatuak beste arrazoi batengatik.

Lesbianei dagokienez, zer dakigu?

Estatuek ideia argia zuten: ezer ez erratea, ez existitzeko gisan. Austriak zigortu zuen emakumeen arteko homosexualitatea, beste herriek ez. Lesbiana beste arrazoi batzuegatik zen pertsegitua: "asoziala" zelakoan, "moralitatearen izenean", familiaren baloreekin ez zelakoan bateragarria. "Lesbiana" hitza inoiz ez zen agertzen, baina errepresio-mekanismoa hor zen.

Morala zabala eta partziala da.

Ikaragarritzko errepresioa zen, hitz batzuei segiz presio ikaragarria burutzen zutelako. Garaian erditzen zen emazte heterosexual ezkondua zen norma, besteak zigortzekoak ziren. Historia hori idazten ari gara. Funtsean, QueerCode gune numerikoan biltzen ari gara Bigarren Mundu Gerlan emakume zisgenero eta transgenero lesbianek bizi izandakoa. Zaila dugu, artxibo iturri anitz ez direlako gehiago existitzen eta lekuko gehienak zenduak direlako. ■



Gu ta Gulagak reality-show gaztea estreinatuko du ETB1ek

Euskal Telebistaren udaberriko apustu indartsuena izango da *Gu ta Gulagak* reality berria. Programako partaideak Nafarroako Bardeetan kokatutako kontzentrazio-esparru batera eramango dituzte eta, behin hara iritsita, lan jasangaitzak egitera behartu. Ertzaintzaren laguntzaz, lehiakideak bortizki torturatuko dituzte egunero; eta haien animoa guztiz hondoratzeko Huntza taldearen *Aldapan gora*


entzungo da 24 orduraz Gulagean. “*Gu ta Gutarrak* saioko lehiakideen perfila ikusita, eboluzio naturala iruditu zaigu”, esplikatu dute ETBko arduradunek. Lehiaketaren irabazleak, hau da, bizirik ateratzea lortzen duen bakarrak, lanpostua ziurtatua izango du ETBn. “Ni apuntatuko naiz”, azaldu du Mendaroko gazte batek: “ETBn lana lortzeko askoz gauza umiliagarriagoak egiten dituzte beste batzuek”.

SAREAN ARRANTZATUA

Atsegindutak lortzeko Facebookera igoko dugun irudia



Zakila buruan eta ibili munduan



Txarli Prietok Eusko Legebiltzarraren funtzionamendua hobetzeko gakoa aurkitu du: sukaldea hobetzea

Utikan patata tortilla eta solomo pin-txo ziztrinak Eusko Legebiltzarreko kafetegitik. Txarli Prieto PSEko parlamentariak proposatuta, eta 6.000 euroren truk, Basque Culinary Centerreko adituek ganorazko pintxoak eta menuak egiten irakatsiko diete bertako langileei.

“Goi mailako politikak goi mailako sukaldaritza behar du”, argudiatu du Prietok, “orain arte eman diguten janari

eskasarekin nola egingo genuen ondo gure lana?”. Ados egon dira Legebiltzarreko Mahaiko EAJko kideak. Tripa egoiki beteta, benetan herritarren mesederako erabakiak hartzen hasiko direla hitz eman dute jeltzale eta sozialistek. EH Bilduko ordezkariak kontra bozkatu du, batetik barazki-jalea delako eta bestetik izorratzearen, eta Podemosekoa abstenitu egin da, ez delako ez ezkerrekoa ez eskumakoa.



Menua aukeratzeko Txarlik egunero hartzen dituen tarte horietako batean



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa



ARGIA MOZALIK GABE



Indartu dezagun indartzen gaituena

www.argia.eus/eginargiakoa